# ttipi-ttapa

**270.** zenbakia • 2000ko urtarrilak 27 • **XX.** urtea




*Joaldunak ez ezik, hartzak, mozorroak eta iñautetako pertsonai aunitz izanen dira Ituren eta Zubietan.*

Jagoba Manterola

# Hemen dira mozorroak!

Ailegatu zaigu ganbarako kutxa zaharretan gordetako jantzi, soina eta traste zaharrei hautsa kendu eta mozorrotzeko garaia. Iñauteriak heldu dira eta dagoeneko etxez etxeko itzulia eskean egina dute Orabidean, Eratsunen, Oitzen, Leitzan eta inguruko bertze xoko batzuetan. Aste hondar honetan, berriz, ailegatuko dira inguru honetan fama gehien hartu duten iñauteak: Sunbillako karrozek igandean, eta Ituren, Aurtiz eta Zubietako joaldunek astelehen eta asteartean, jendetza ikaragarria ekarriko dute herri hauetara. Aurten hamasei urte bete dira Sunbillako karriketan karrozak plazaratzen hasi zirela, eta urtetik urtera arrakasta handiagoa dute. Iñauteri hauen berri zehatza, kolorez jantzitako gehigarrian jasoko duzue ale honetan.

☞ **Erdiko gehigarria**



**3** Elkarrizketa:

## Fernando Sarratea

Hogei urtez goizero lan bera egin du 75 urteko doneztebarrak: termometroa eta plubiometroa begiratu eta datuak Metereologi Institutura bidali. *«Ezagutu dudan beroena 38 gradu eta hotzena 13 gradu zero azpitik izan dira»* dio.

**4-5** Erreportaia:

## Sagardo kupelak zabalik!

Gure eskualdeko nahiz Hernani eta Iruñe aldeko sagardotegien eskaintza bildu dugu erreportaian. Zutik nahiz eserita, sagarraren mama goxoaz bustitako txuleta, bakailu, giltzaur eta gasnak jateko aukera nonahi.

**6** Iritzia:

## Garraiolarien greba

Duela aste batzuk Frantzian egin zuten bezala Espainia aldeko garrariolariek ere huelga egiteko asmoa dute aste hondar honetan.

**28** Kirola:

## Josu BALEZTENA

17 urte berritan, aurrekontratua sinatu du ASPErekin aurrelari eratsundarrak.

**TTIPI TXARTELA**: Orain txartela izateak abantaila gehiago ditu. Erosi zeurea eta erabili.





4.000m²ko erakusketa mobleak ikusteko
MUEBLES AMETS
Sarrera BERAtik da
Alkaiagako industrialdean
Sastrin karrika, 3.2 - 3.4
31789 LESAKA
Tfnoa. :948 630 537
Faxa: 948 631 443
Larunbat arratsaldetan irekia
MUEBLES AMETSen gazteendako mobleei behar den garrantzia ematen diegu, material eta kolore ezberdinei esker, gusto eta behar guzietara moldatzeko.




Marina
Iñauterietako zure denda
• HELDUENDAKO MOZORRO ALOKAIRUA.
• Heldu eta haurrendako neurrira egindako trajeak.
• Osagarriak: pelukak, txanoak…
Colon Ibilbidea, 1 • IRUN • Tfnoa: 943 622210

DATUAK.........

❖ *Nafarroako Gobernuak Nafarroa osoan dituen 90 kolaboratzaileetako bat da 75 urteko doneztebar hau.*

❖ *20 urtez, 7.300 egunez, termometroa eta plubiometroa begiratu ditu goizero-goizero Fernandok, gero Meteorologi Institutura bidaltzeko.*

❖ *Meteorologo eta nekazariei euren lanean laguntzeko balio dute datu hauek.*

❖ *Bere burua ez du eguraldi-gizon bezala ikusten, baina hamaika kontu dakizki Fernandok hemengo giroari buruz. Bere erranetan, 1.200 litro ur botatzen du urtero Donezteben, baina Bera omen da eskualdeko herririk euritsuena.*

TESTUA: **IOANA IÑIGEZ**
ARGAZKIA: **ASIER GOGORTZA**

☞ **Fernando SARRATEA** *Doneztebeko eguraldi begiralea*

# "13 grado zero azpitik izan da neurtu dudan hotzik haundiena"

**ZU METEREOLOGOA ZARA AFIZIOZ. NOIZ ETA NOLA HASI ZINEN HONETAN?**

Duela 20 urte inguru hasi nintzen. Ni ITG-rekin aritzen nintzen lanean, eta behin erran zidaten Pako Eraso, lehen hau egiten zuena, hil egin zela eta ia nik eginen nuen haren ordez. Nik erran nion aparatuak baserriaren ondoan paratzen bazituzten hartuko nituela datuak. Hemen paratu zituzten, eta orduztik bi aldiz aldatu dizkidate trasteak. Gero eta modernoagoak jartzen dituzte. Lehenbizikoa termometro ttiki-ttiki bat zen soilik, eta gero haundiagoa paratu zuten.

**ZEIN DA ZURE LANA?**

Goizeko 8,30ak aldera hartzen ditut eguraldiaren datuak: euria egin baldin badu kantitatea neurtzen dut, eta gero tenperatura haundi eta ttikienak hartzen ditut. Gero Caja de Ahorrosera igortzen dugu telefonoz goizeko 9ak baino lehen. Handik Iruñera, Nafarroako Gobernura bidaltzen dute. Nik baserrira egunero etorri behar dut bertzenaz ere, hemen baititut aziendak, eta honek ez dit neke haundirik ematen egia erran.

**EGUNERO-EGUNERO EGIN BEHARREKO LANA DUZU HAU, EZTA?**

Bai. Iruñera bidali eta gero, 9etan punttu-punttuan berriz neurtzen dut. Beti ordu berean izan behar du, neguan 9etan eta udan 10etan. Datu hoiek txartel batean apuntatu eta Meteorologi Institutura bidaltzen dut hilabetero. Noizbait nik ezin badut nere alaba etortzen da.

**ZEIN IZANDU DIRA TENPERATUREN GORABEHERAK AZKEN BOLADAN?**

Azken aldi honetan franko nahasia dago eguraldia. Uste genuelarik hoztu behar zuela berotzen zuen, eta uste genuelarik berotu behar zuela haize hotz bat sartu eta hoztu egiten zuen.

**HURRENGO EGUNEAN EGINEN DUEN EGURALDIA ASMATZEN DUZU?**

Ez, ez. Nik gaur egin duena ondoko egunean dakit, baina oraindik egin ez duena ez dut jakiten ahal. Batzutan ikusten da… handik iluna heldu da eta euria dugu instanterako, eta haizea nahasia dabilelarik ere ura ekartzen du, aunitz edo gutti baino agertu behinpin egiten da. Hemen euria eta lainoa da nagusi. Urtero 1.200 litro ur inguru botatzen du Donezteben, baina Bera da herririk euritsuena.

**ZEIN IZANDU DIRA EZAGUTU DITUZUN TENPERATURA TTIKI ETA HAUNDIENAK?**

Nik ezagutu dudan tenperaturarik beroena 38 gradokoa izandu da, 40ra ez da ailegatu, eta hotzena berriz 13 grado zero azpitik.



«Duela 20 urte hasi nintzen eguraldiaren datuak hartzen».

*"Goizeko 8,30ak aldera hartzen ditut eguraldiaren datuak: euria egiten baldin badu kantitatea neurtzen dut, eta gero tenperatura haundi eta ttikienak hartzen ditut"*

TXOTX DENBORALDIA

# Urte guziko lana sagardo bihurtua

***Iazko sagar uzta sagardo bihurtu da dagoeneko. Urte hasierako giro hotz honek ez du sagardoa bere punttuan jartzen sobera lagundu, baina hala ere sagardotegi guziek prest dituzte euren kupelak.***
***San Sebastian egunak agintzen du sagardo denboraldiaren hasmenta, eta hemendik aste santu ingururaino iraunen du sagardoaren sukarrak.***
***Urtetik urtera gero eta aukera gehiago dago sagardoa dastatu eta txuleta zein bakailuz asetzeko, sagardotegiak franko ugaltzen ari baitira Astigarraga-Hernani eta Urnietako mugetatik kanpo ere.***



Denboraldia berriki hasi dute sagardotegi guziek.

Erreportai honetan 7 sagardotegi desberdinen eskaintzak bildu ditugu. Jakina denez, gaur egun ñabardura dexente dago sagardotegi batetik bertzera. Batzuk lehengo sagardotegi zaharren giroa mantentzearen aldekoak dira, eta bertzeak, aldiz, sagardotegi-jatetxe hibridoa sustatzen dute tradizioari segida emateko.
Hernani aldera joko dugu lehendabizi, inguru hartan baitago Zelaia sagardotegia. Zutik jan eta edan behar da han, kupel tartean. Urtearen buruan 300.000 botil inguru saltzen dituzte, eta hortara bideratzen dute gehienbat euren lana. 190 pezetatan saltzen diete bezeroei botila bakoitza.
Gipuzkoatik ateri gabe, bainan sagardoaren lurraldetik bereizi xamar, Ola sagardotegia harrapatuko dugu, Irungo Meaka auzoan. 250 lagunentzat tokia duen sagardotegi klimatizatua da hau. Sagarra Zarautz ingurutik ekartzen dute eta bertan egiten dute sagardoa.

### Eskualdean hiru sagardotegi

Eskualde honetan hiru sagardotegi daude, Koxkonta Lesakan, Erreka Leitzan eta Larraldea Lekarozen, baina hirugarren bat ere laster idekiko dute Lesakako Nabaz auzoan. Koxkontara Urnietatik ekartzen dute sagardoa, eta bertan irakiten kontu dute orain arte. Josetxo Etxegarai etxeko nagusiak erran digunez jatetxeko menuak konbinatzen ahal dira sagardotegikoarekin. Sagardotegia klimatizatua dago.
Jabier Erbiti da Leitzako Erreka sagardotegiko nagusia. Astigarragatik ekartzen dute sagarra, baina irakin bertako kupeletan egiten dute. Denetara 5.000 bat litro ateratzen dituzte. Errekan urte guzian dago sagardoa txotxetik edateko aukera, eta hau ere klimatizatua dago.
Lekarozko Larraldean asteburu honetan ideki dute txotx denboraldia, eta abuztua bitarte luzatuko dute. Larraldeako Gregorio eta Jesus Angelek produzitzen dute beren sagardoa (2.000 sagarrondo dituzte), eta jateko sagardotegietako menu tipikoa prestatzen dute.

### Iruñea aldean ere sagardotegiak

Iruñea aldean ere sagardotegi berriak sortzen ari dira hen hemenka. Kalean Gora sagardotegia Iruñeako Tajonar auzoan dago. Sagardo guzia Astigarragatik ekartzen dute, eta txotx garaiko menu tipikoaz gain, jatetxeko menuak konbinatzeko aukera ematen dute. Urte osoan idekia izaten dute.
Iruñea ondoan badago bertze bat, Aizoain herrian, eta Aizoain izena du sagardotegiak ere. Euren zazpi kupelak betetzeko sagardoa bertan egiten dute. Hauek sagardotegiko menu tipikoa eskaintzen dute jateko.
On egin! ■

## KALEAN GORA

➦ **Non:** Iruñea, Tajonar karrika, 2.

➦ **Sagardoa:** Astigarragatik ekartzen dute.

➦ **Menua:** Bakailu tortilla, bakailu prejitua, rape, kogote edo txuleta, gazta eta irasagarra. Etxeko postreak aukeran, eta karta ere bai. Tolosako ilar-gorriak, xixa nahaskia edo sasoiko platerak aukeran.

➦ **Prezioa:** 2.500 pta inguru.

➦ **Tokia:** 160 eserita. Aparkaleku publikoa du ondoan. Klimatizatua.

➦ **Noiz:** Urte guzian irekia, igande arratsalde eta astelehenetan izan ezik.

➦ **Telefonoa:** 948 152 300 (Mª Jesus).



## OLA

➦ **Non:** Irun. Meaka auzoa, 102.

➦ **Sagardoa:** Bertan egiten dute. Sagarra Irun, Hondarribia eta Zarauztik ekartzen dute.

➦ **Menua:** Bakailu tortilla, bakailu prejitua, txuleta, gazta, irasagarra eta intxaurrak. Ez dago ardorik, ez koparik, ez kaferik.

➦ **Prezioa:** 2.800 pta inguru.

➦ **Tokia:** 250 eserita. 50 autorentzat parkina. Autobusak. Klimatizatua.

➦ **Noiz:** Urte guzian irekia arratsaldez. Asteburutan eguerditan ere bai. Klimatizatua.

➦ **Telefonoa:** 943 623 130 (Iñaki).



## ERREKA

➦ **Non:** Leitzako Erreka auzoan. Leitzarango autobidetik Leitzako sarrera hartu eta 300 metrora.

➦ **Sagardoa:** Astigarragatik ekartzen dute mostoa eta bertan irakin. Hemengo sagarra erabiltzen dute.

➦ **Menua:** Bakailu tortilla, bakailu prejitua tipularekin, txuleta, etxeko gazta, irasagarra eta intxaurrak. Etxeko postreak aukeran, eta menu honetaz aparte karta ere ematen dute nahi izanez gero.

➦ **Prezioa:** 2.500-3.000 pta inguru.

➦ **Tokia:** 80 eserita. 40 autorentzat parkina, eta autobusentzat ere tokia badago. Klimatizatua dago sagardotegia.

➦ **Noiz:** Urte guzian irekia, astelehen arratsaldetan izan ezik.

➦ **Telefonoa:** 948 510 625 (Jabier).



## KOXKONTA

➦ **Non:** Lesakako sarreran, fabrika aldera doaien bidea hartuta, eskuinaldean.

➦ **Sagardoa:** Urnietatik mostoa ekarri eta Lesakan irakiten dute.

➦ **Menua:** Bakailu tortilla, bakailu prexitua, txuleta edo rapea, txitxarroa… intxaurrak, gasna, irasagarra eta nahi izanez gero whisky-tarta edo etxeko kopa… sagardotegi eta jatetxeko menua aukera daitezke.



➦ **Prezioa:** 2.500 pta inguru.

➦ **Tokia:** 100 lagun jarrita. 25 auto eta autobusak.

➦ **Noiz:** Hilaren 22an ideki dute sagardotegia, eta apirila erdialdera arte egonen da idekia.

➦ **Telefonoa:** 948 627 503 edo 948 627 519 (Josetxo).

## LARRALDEA

➦ **Non:** Lekarozko elizaren eskuinaldetik hartuta 1,5 km-tara. Telleri auzoan.

➦ **Sagardoa:** Bertan egina. Sagarra Asturiastik ekarri eta bertakoarekin nahasten dute.

➦ **Menua:** Hasteko; txorizoa sagardoan, bakailu tortilla edo ajoarrieroa; ondotik, txuleta edo bildots saiheskia eta gero; gasna, giltzaurrak eta irasagarra; gaztain denboran Baztango gaztainak.

➦ **Prezioa:** 3.000 pta inguru.

➦ **Tokia:** 100 lagun jarrita. Aparkalekua 40 autorentzat, eta mikrobusentzat ere tokia badago.

➦ **Noiz:** Abuztu arte.

➦ **Telefonoa:** 948 45 21 21 (Gregorio, Jesus Angel)



## ZELAIA

➦ **Non:** Hernaniko Martindegi auzoan, 29. zenbakian. Astigarragatik Hernani aldera bidegurutzean ezker hartuta.

➦ **Sagardoa:** Bertan egina. Lehentasuna botiletan saltzeari ematen diote. Urtero 300.000 botila inguru banatzen dute.

➦ **Menua:** Aitzinetik eskatu behar da.

➦ **Botilaren prezioa:** 190 pta.

➦ **Tokia:** Zutik.

➦ **Noiz:** Botilan urte guzian saltzen dute, txotxetik, berriz, denboraldi hasieran.

➦ **Telefonoa:** 943 555 851 (Jose Antonio)



## AIZOAIN

➦ **Non:** Aizoain herrian, Iruñea eta Berriozar artean. Hiruregaina poligonoa, 56.

➦ **Sagardoa:** Bertan egindako sagardoa. Sagarra Asturias eta Galiziatik ekarri eta bertakoarekin nahasten dute.



➦ **Menua:** Bakailu frixitua, bakailu tortilla, txuleta eta postreak aukeran.

➦ **Prezioa:** 3.500 pta inguru.

➦ **Tokia:** 200 lagun jarrita. Parkin zabala auto eta autobusentzat.

➦ **Noiz:** Urte guzian zabalik.

➦ **Telefonoa:** 948 303 192 (Jose Antonio)

**ttipi-ttapa**
HAMABOSTEKARIA

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 7.100 ALE

**Helbidea:**
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
Faxa: (+34) 948 63 12 91
**Internet:**
http://www.topagunea.com/ttipi-ttapa
**e-mail:**
ttipi-ttapa@topagunea.com

**Jabea:** TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA. **Presidentea:** Pello Apezetxea. **Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien. **Zuzendaria:** Aitor Arozena. **Publizitatea:** Kulturkari, S.L. **Administrazioa:** Amaia Goia. **Erredakzioa:** Aitor Arozena, Asier Gogortza. **Berriemaileak:** Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Lorena Galarregi, Pablo Mendiburu, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Ana Mari Etxeberri, Frederick Berruet, Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Aitor Arozena, Asier Gogortza. **Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa, Mikel Bezunartea, Belarra… **Inprimategia:** Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea…

**Harpidetza sariak:**
Hego Euskal Herria . . . .2.200 Pta.
Ipar Euskal Herria . . . . .160 Libera
Europa . . . . . . . . . . . . . .4.000 Pta.
Amerika . . . . . . . . . . . .16.000 Pta.

**Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du**



GAURKOTASUNEKO GAIA

# Garraiolarien greba

## Orain dela 10 urteko prezioan ari gara lanean, eta gastuak goiti joan dira



Juan LEIZA
Lesakako kamioilaria

Ni autonomo gisa aritzen naiz, Lesakatik Zaragozara egiten ditut bidaiak, eta bueltan, berriz, han harrapatzen dudan kargarekin. 26, 27 eta 28rako Espainian konbokatu den greba ongi iduritzen zait, ez baita eskubiderik gasoila eta segurua altxatu diren bezala altxatzeko. Segurua %40a goitu da kamioietan, eta gasoila, berriz, joan den martxotik honat 30 pezeta goitu da litroa, eta hilabetearen hondarrean diru aunitz suposatzen du.
Horrelako greba baten aitzinean beti makurrago pasatzen dugu autonomoek. Enpresa handietakoak gu baino aisago defenditzen dire, bai.
Gure gremioan bada kristoren konpententzia, eta geronek jausten ditugu porteak, nik ez, baina enpresa haundiek bai. Auniztan kulpa porteak jausten dituenarena da, errespetu pixko bat behar da prezioekin. Ateri kontuak, orain dela 10 urteko prezioan ari gara lanean, eta gastuak nola joan diren goiti!
Denak hagitz haserre gaudezi gasoilaren prezioarekin, eta elkarrekin mugitzen bagara moldatuko da, garraioak indar haundia duelako, baina egonean egon ezkero…

## 35 orenak aisa ematen ahal dira fabriketan, baina bidean ez dira ezartzen ahal



Jean Noel BEZUNART
Senpereko kamioilaria

Greba hiru egunekoa izan zen Frantzian. Leku askotan gauez gelditu zen greba, eta hemen Miarritzen, berriz, biharamun goizean. Negoziaketa guzietan bezala bakotxak pixko bat eman du, konpromiso bat behar izan da ateratu. Akordio hori ona edo txarra den ez da oraino erraiten ahal, hori behar da ikusi egun hauetan.
Galdeak ziren: lehenik gasoilaren gainean, ainitz emendatze izan baita, kasik %30a, eta beste gauza 35 orenen gainean zen. Hor aitzinamendu batzuk badira, nik uste. Espainia aldean uste dut arazo haundiena gasoilaren emendatzea dela. Bi estatuetan ainitz upatu da gasoila, %25-30a, baina duela bi urte beheiti egin zuen… hori petroleoaren prezioaren arabera da. Baina Frantzian 35 orenen afera ere bazen: 35 orenak aisa ematen ahal dira fabriketan edo horrela, baina bidean ez dira orenak horrela kontatzen ahal.
Hala ere, ez da arazo bera gasoilarena eta 35 orenena. 35 orenak ematen badira hori betikoz izanen da, eta horregatik behar da lehenagotik konpondu. Nere ustez Frantzian hori zen greba egiteko arrazoi nagusia.

## Denek batera greba egin ezkero indar gehiago egiten ahal genuen



Txomin IRIBARREN
Urdazubiko kamioilaria

Hilaren 22an egitekoa zen sindikatuen bilera, eta hor argitu beharra zen greba egin edo ez.
Frantzian egin den grebaren gisakoa izanen da Espainian. 35 orduetatik aparte gainontzeko galderak berdinak dira. Hemen 35 orduen legea oraino ez da sartua baino pentsatzen dugu denborarekin ailegatuko dela. Orain kamioiak ematen dituen irabaziekin ez da pentsatzen ahal 35 orduetan. Bulegoetan eta bertze lanetan beharbada bideragarria izanen da, baina garraioan gaurko egunean ez. Guk 45 edo 48 ordu egiten ditugu orain.
Nere ustez greba hauek ez dute fundamentu haundirik izaten ahal batzuk alde batetik eta bertzeak bertzetik hilabete berean egiten baldin bada. Nik pentsatzen dut denak batera egiten badugu indar gehiago egiten ahal genuela. Orain Frantzian eta gero Espainian, azkenean lan-egun aunitz galtzen dira eta indarra bera ez da sekulan egiten.
Nik espero dut Espainian greba ez ateratzea. Hori ona izanen litzateke, konponketaren bat lortu delako seinale izanen bailitzateke.

ttipi-ttapa fundazioak Europako Batzordearen dirulaguntza jaso du

**ARTEKARI TALDEA**
ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA
**LESAKA:**
• Astelehenetik asteazkenera 9-13tara eta 16-20tara
• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara
**Non:** MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050
**BURLATA:**
ARTEKARI, S.L., ✆ 948133328•133346. Faxa: 948133713
**Non:** La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

✎ Langile Autonomoak
✎ Nekazariak eta mendi-langileak
✎ Nominak eta Aseguro Sozialak
✎ Lan-kontratutarako laguntzak
✎ Empresa berri ezberdinen sortzea
✎ Diru-laguntza ezberdinak
✎ Kontabilitateak
✎ IVA eta IRPF
✎ Errenta aitorpenak
✎ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
✎ Bideragarritasun planak

# BERTIZKO MERKATARI ELKARTEA

## *Hemen bizi, hemen erosi*

## BONOAK NOLA ERABILI

Bono hauek, Bertizko Partzuergoko Merkatari Elkarteko dendetan eskatu behar dituzu. Elkarteko edozein dendatan erosketa haundi xamar bat egiten duzunean, barneko aldean dauden koadroetako batean kuño bat paratzea eskatu beharko duzu. 20 koadroak betetzean, elkartean dagoen komertzio bati eman, edo Bertizko Partzuergora bidal ezazu. Urtarrilaren 15etik martxoaren 31ra daukazu zure bonoak betetzeko. **Zertarako?**

Ailegatzen diren bono guzien artean, bi zozketa eginen ditugu:

### OTSAILAREN 29AN

- 2 erosketa bale, 50.000 ptakoak.
- Gure komertzioetako 35 opari.

### APIRILAREN 11N

- 3 erosketa bale, 50.000 ptakoak.
- Gure komertzioetako



**ARIZKUN**
Baztan Likoreak

**BERA**
Alzuri Sukalde Tresneria
Antzuzelai SL
Errotazar harategia
Oihana jantzidenda
Martiko
Guria drogeria
Pizzio estankoa
Ayla argazkidenda
Goiko argazkidenda
Goya
Jaione gozotegia
Kalotxa zapatadenda
MªLuz Sport
Martzutzak
Nafarroa
Igone paperdenda
Radio Bidasoa
A. Iglesias
Mendi-mendian benta
Zela kirolak

**DANTXARINEA**
Zubiondoa benta

**DONEZTEBE**
Ruiz okindegia
Bidasoa Asesores SL
L. Martin harategia
Albaitaritza Zentrua
Ostiz etxea-estankoa
Mendia botika
Belen loredenda
Mena argazkidenda
Zaldua argazkidenda
Ezkalo inmobiliaria
Kiliki eskulanak
Mª Cruz lentzeria
Ibarrola mertzeria
Telletxea mobleak
Sorozabal goxotegia
Beatriz ileapaindegia
Amaia ileapaindegia
Alustiza lurrindenda
Itxaso arrandenda
Txirrista arropadenda

**ELIZONDO**
Galarregi janaridenda
Esarte harategia
Ruiz etxea
Coco´s arropadenda
Belzunegi jantzidenda
Elkar autoeskola
Elordi liburudenda
Rosa Etxegoien estankoa
Baztan ferreteria
Quevedo ferreteria
Mena argazkidenda
Zaldua argazkidenda
Zunzarren gestoria
Iparla kirolak
Ipingi
Maite lentzeria
Nafarpres
Natura etxea
Artesana okindegia
Beñardo okindegia
Malkorra goxotegia
Beatriz lurrindenda
Arrieta erlojudenda
Txiki´s arropadenda
Virgilio zapatadenda

**ETXALAR**
Ansalas janaridenda
Herriko denda

**IRURITA**
Arkupe goxotegia

**LEKAROZ**
Kiwi Baztan

**LESAKA**
Ana janaridenda
Telletxea argazkidenda
Ibaiondo janaridenda
Izarra okindegia
Legarra liburudenda
Osiña jantzidenda

**ORONOZ**
Oskorri liburudenda

**SUNBILLA**
Mª Sol janaridenda

KOLABORAZIOAK

☞ **Jaione ASTIBIA** *Leitzako zinegotzia (EH)*

# Egun ez normalizatua izan behar du ilbeltzeren 27ak



**E**uskal presoen gaia, egun, Euskal Herriak duen arazorik garratzenetakoa da. Halaxe erakutsi eta adierazu du euskal gizarteak behin baino gehiagotan: edozein herriko auzotan antolatu diren ekitalditik eta herri guzietan burutu direnekin jarraituz, Bilboko azken manifestaldia ikusi besterik ez dago. *Lizarra-Garazi* dela, *Batera* dela, *AAB* dela, *Senideak* dela, hainbat erakundek beste hainbeste alditan euskal preso politikoen oinarrizko eskubideen aldeko jarrera eta lana burutu dute. Bakoitzak ahal duen heinean, zerbait egin behar du. Baina ikusi eta entzun behar luketenak, itsututa eta sortuta daude, ez dute ikusi nahi eta ez dute entzun nahi!

Gaur egun martxan dagoen burrukaren adierazlerik gordinena, euskal presoek aurrera daramaten gose greba iraunkorra eta amaigabea da.

Berez eta legez dituzten eskubideak lortu ahal izateko, hilabeteak daramatzate gose greban. Euskal preso hauek baldintzarik gogorrenetan ari dira protesta hau egiten, kartzelan. Horrek areagotu egiten ditu gose grebak berak dituen arriskuak. Beste zenbait, eritetxetan daude, gose grebak utzitako ondorioetatik zuzpertzen. Deus ere jan gabe 56 egun egondakoak badira!

Baina Madril eta Paris aldean ez dira batere mugitzen, presoen plante horri muzin egiten diete eta ez dute euskal gizarteak hainbeste aldiz kaleratu duen presoen eskubideen aldeko jarrera errespetatu, ez dituzte Euskal Herrira ekarri. Eta euskal gizarteak nola edo hala mugitu arazi egin behar du gai hau. Euskal presoen egoera honi irtenbidea eman behar diogu. Eta ilbeltzak 27rako deitutako greba orokorra, beste protesta bide bat da. Ehundaka eta milaka Km.tara dauzkaten euskal presoak Euskal Herriratzeko esijitzeko eta Euskal Herriaren eraikuntzan zuzenean parte hartzeko duten eskubidearen alde jokatzeko pauso ondua, landua, beharrezkoa da greba orokorrari dagokion hau.

**ilbeltzaren 27ak egun ez normalizatua izan behar du: txoko guzietan nabaritu behar da gizarteak euskal preso politikoen egoera bere egin duela eta horiek Euskal herriratu arte ez dela geldituko.**

Ilbeltzaren 27ak egun ez normalizatua izan behar du: lantokitan, dendetan, udaletan, ikastetxetan, tabernetan... txoko guztietan nabaritu behar da gizarteak euskal preso politikoen egoera bere egin duela eta horiek Euskal Herriratu arte ez dela geldituko. Azken finean euskal preso politikoen eskubideak errespatatu daitezen besterik ez da eskatzen: Euskal Herrian egon daitezela, beren senide eta lagunen ondoan, eta Herriaren eraikuntza-prozesuan parte hartu dezatela. Besterik ez!

☞ **Jose Luis ETXEGARAI** *Lesakako alkatea (EAJ)*

# Ez nago ados 27ko greba orokorrarekin



**A**tseginez ikusi dut 27ko greba orokorra bezalako gai garrantzitsu baten inguruan iritzia eskatu didatela, eta nere harri koxkorra ekarriko dut gaur egungo egoera politikoa aztertuz.

Lizarra-Garaziko deklarazioa euskal arazoari irtenbide bat bilatzeko asmoarekin sinatu zen. Elkarrizketarekin eta irtenbide demokratikoarekin konpromezua hartuz, momentu horretan arazo politikoari aterabide demokratikoa bilatzea eta bakea ziren helburu nagusiak. Erabakitze prozesu hau egoera delikatuan dago gaur egun.

Geure buruaren mugei eta batez ere PPren oztopo eta inmobilismo politikari aurre egin behar izan diegu.

Bertzetik, ETAk su-etena hautsi izana kaltegarria da. Etiko eta politikoki onartezina da indarkeriaren bidez prozesuaren martxa baldintzatzeko keinua egite hutsa, horrek euskal gizartearen borondatea zatitu eta desitxuratu eginen bailuke.

Lizarra Garaziko akordioa hamarkadetan lehen aldiz irtenbideetara hurbildu gaituen gune bakarra dela kontuan edukiz, arduragabea litzateke esperientzia hau hutsean gelditzen utziko bagenu, gaizki ulertutako pertsonalismo edo protagonismoengatik.

Neretzat zaila da aldebateko greba orokor deialdi honen alde ateratzea, Lizarra Garaziko deklarazioak eta Batera plataforma bateratzaileak presoen alde elkarrekin lan egitera behartzen gintuztela uste baikenuen, eta ez alde bakarreko deialdiekin nahi dugunean desmarkatzera.

Presoen eskubideen inguruan aurkitutako kointzidentziek eta hartutako konpromezuek, zoritxarrez gertatu ez diren ekimen bateratuak eskatzen zituzten nere ustez.

Horregatik azpimarratu nahi dut gauzak elkarrekin egiteak balio desberdina duela, zeren gizartea talde bakoitzaren barne dinamikei obeditzen dieten ekimenetan inplikatu nahi izateak, ulergarria izanik ere, nahastea, motibazio falta eta azken batean, ahultasuna erakutsi dezakete, eta horrek ez du presoen eta euskal egoera politikoa batere hobetzen.

**Ez nago ados 27ko greba orokorrarekin, horrelako ekimen garrantzitsu batek oraingo honek duena baino kontsentsu maila hagitzez haundiagoa behar duela pentsatzen dudalako.**

Beraz, EZ nago ados urtarrilaren 27ko greba deialdiarekin.

Lehenik, greba orokorra bezalako ekimen garrantzitsu batek oraingo honek duena baino kontsentsu maila hagitzez haundiagoa behar duela pentsatzen dudalako.

Bigarrenik, sortze eta erabakitze prozesuan partehartze eta akordio politiko nahikoa izan behar duelako, eta ez da onargarria gizartea azken orduko erabaki pertsonalen eta ekintza gauzatuen aurrean jartzea.

## PRENTSATIK BILDUTAKOAK



Euskaldunon Egunkaria 00ko urtarrilak 8

*«Ni jotzeko gogoarekin nago, baina badakizu merkatua nolakoa den. Disko berririk ateratzen ez baduzu, oro har musikaria gelditzen da gibela bezala. Horrek ez du erran nahi kantuak egiten jarraitzen ez dudanik. Nire erritmora segitzen dut, eta egia erran, nahiko ongi nago horrela».*

**Pantxo ETXEBERE "Pottoka"**
Amaiurko musikaria
Euskaldunon Egunkaria
00-01-08

*«Ia ferrategiak akabo dire. Orain gainera jendea ez da etortzen ferratzera, ez baita ibiltzen ahal karreteran aziendekin. Orain alrebes, ferratzaileak gaten gara etxeetara. Adineko jendea den etxeren batean eta segidarik gabekoan ibiltzen dire animaliak lanerako, baino urriak dire».*

**Francisco OBREGOZO**
Iruritako ferratzailea
Diario de Noticias
00-01-13

*«Nik euskaraz hitz egin nahi dut. Euskara behar nuen gustura ibiltzeko eta horrexegatik ikasi dut. Ez dut inongo agiriren beharrik».*

**Koteto EZKURRA**
Doneztebeko erremontelaria
Gaztetxulo (Donostia)
00-01-14

## 11 GALDERA LABUR



**Xabier MARITORENA**
**«Petri»**
ANIZko gaztea

◆ **Negua: Eguberriak, merkealdiak, iñauteak...**
❖ Denak erortzen garen kontsumismo nazkagarria.
◆ **Iñauterietako mozorro bat?**
❖ Sabaitik hartutako lau trapu zahar.
◆ **Urtarrileko aldapa akitzen ari da.**
❖ Otsaila pottolo-pottolo hasiko dugu.
◆ **Otsaila luzeagoa omen da...**
❖ Sexuaz gozatzeko aukera gehiago izango???
◆ **Hemendik 25 urtera zer?**
❖ Seme-alabekin ilargirako bidean.
◆ **Azken milurteko pertsonai bat?**
❖ Fidel Kastro, Kubara berriz ganen nintzateke.
◆ **Kubara joateaz gain, nora?**
❖ Irlandara, anaiak ezagutzera.
◆ **Anizen bizitzeak, zer du ona eta zer txarra?**
❖ Ona, lasaitasuna. Txarra, berriz, kotilleoa.
◆ **Musean, ordago bat nori botako zenioke?**
❖ Galindo generalari.
◆ **Eta futbiton, gola nori eskainiko zenioke?**
❖ Maite dudan neskatxari.
◆ **Maskota bat?**
❖ Giraldilla.
◆ **Defini zaitez bi hitzetan.**
❖ Guapoa eta inteligentea, baina hau hamabigarrena duk!!


**DISFRACES LA MASCARA**



✌ Iñauterietako mozorroetan den-dena daukagu
✌ Era guzietako osagarrien alokairua eta salmenta
✌ Festen prestakuntza
✌ Makilai profesionalak...

Bazar denda: Abejeras, 6 • Tfnoa: 25 00 04 • Faxa: 25 00 04 • 31007 IRUÑEA

☞ IÑAUTERIAK

# Milurte berriko lehen iñauteriak ospatu dituzte Orabidean

## Etxalar eta Baztan aldeko baserrietan barna ibili dira gazteak

TTIPI-TTAPA

Iñauteri garaian bete-betean sartuak gaude. Aste honetan ospatuko dira eskualdeko famatuenak, Sunbilla, Ituren eta Zubietakoak, alegia. Aitzinetik, ordea, han eta hemen burutzen ari dira beraien iñauteriak.

Milurteko lehendabizikoak Orabideakoak izan omen dira, ilbeltzaren 7 eta 8an egin baitziren. Baztan eta Etxalarren arteko muga inguratzen duten baserri eta bordetan ibili ziren gazteak puska biltzen. Guzira hogei baserritara eraman zuten besta giroa. Hamalau gazte ibili ziren, Jose Angel, Kristian eta Silvie soinularien laguntzarekin.

Ortziralean bazkaria izaten dute urtero, baserri ezberdinetan. Aurtengoa Urtsua baserrian izan da eta gustora atera ziren gazteak. Afariak, berriz, Etxebertzeko Bordan egin dituzte, beti bezala. Puska biltzaileek eskerrak eman nahi dizkiete borda guzietako ateak zabaldu dizkietenei.





**Gazteak gustora ibili ziren puskak biltzen Orabideako baserrietan. Jose Angel, Kristian eta Silvie soinularien laguntza izan zuten hogei baserritara ailegatzeko.**

☞ BERTIZ

## Hemen erosten dutenen artean sariak zozketatuko dituzte Bertizko merkatariek

Bertizko Partzuergoko Merkatarien Elkarteak erosleen fideltasuna saritzeko egiten ari den kanpainaren barnean hasiak dira dendetan bonoak partitzen. Elkarteko edozein dendetan erosketa haundi xamarra eginez gero, bonoen barneko aldean dauden koadroetako batean kuño bat paratzea eskatu behar da. 20 koadroak betetzean, komertzio batean utzi edo Bertiz Partzuergora bidali beharko dira. Martxoaren 31 arteko epea dago bonoak betetzeko. Ailegatzen diren bono guzien artean bi zozketa eginen dira, bata otsailaren 29an (50.000 pezetako bi erosketa bono eta 35 opari) eta bertzea apirilaren 11n (50.000 pezetako hiru erosketa bono eta 35 opari).

Kanpaina eta zozketa hauek, «Hemen bizi, hemen erosi» lemapean Bertiz Partzuergoko Merkatarien Elkarteak inguruko dendetan erosteko sentsibilizazio kanpainaren barnean kokatuak daude.

**Iriarte-Echandi, S.l.**
• Aholkularitza
• Artekaritza
• Aseguruak
Kanttonberri 1 • BERA • Tel eta Faxa: 948 631169

KULTUR ETXE AURREAN
BERA

zapatak
osagarriak
konponketa
kalotxa
merkealdiak
Kanttonberri 6 Bera
✆ 948 631516

ROMANO PINTURAK
Barnealdeko dekorazioa, pintura, papera, moketa eta sintasola.
✆ 948 63 11 37 / 649 84 01 49 • BERA

Rafa: 600 819 640
Jose: 666 235 466
PINTURAS LEGUIA S.L.
Eztegara 26, 2.C - BERA

## ☞ BERA

# Munduko bazter guzietako musika tresnak kultur etxean

Erakusketa ilbeltzaren 31n idekiko dute

ASIER GOGORTZA

Toki Ona ikastetxeak antolatu du erakusketa eder hau. Heldu den astelehenean, urtarrilak 31, irekiko dute, eta arratsaldeko 6etatik 8etara egonen da zabalik. Otsailaren 27a bitarte joaten ahalko da ikustera.






**Airezkoak, idiofonoak, sokazkoak eta perkusio tresna desberdinak ikusi ahal izanen dira erakusketa honetan. Hemengo hauek egonen dira ikusgai bertze batzuen artean: goitian ezkerrean, oboe tibetarra; ondoan gong txinatarra; Indiako bastoidun kitara; eskuineko hau, berriz, Indonesiako kupel gisako danborra.**

### Kontratuetan argitasuna eskatu du LABek

Zalaingo Aceralia fabrikako atean kontzentrazioa egin zuten joan den ortzegunean LAB-eko ordezkariek, aldi baterako kontratuetan irregulartasunak daudela salatzeko. Gaur egun produkzioan ari direnen %30a behin behineko kontratuarekin ari da.



### Bertze aukera bat euskara ikasteko

Bortzirietako IKA Euskaltegiak euskara ikastaroetan matrikulatzeko epea ireki du berriz ere. Maila guzietako ikasleei luzatu diete deia, hobetu nahi dutenei, euskaraz idazten eta leitzen ikasi nahi dutenei eta baita hutsetik hasi nahi dutenei ere. Klaseak astetartean edo asteburuetan hartzen ahal dira, baina informazioa eskatzeko bertara deitzea da hoberena; 948 637 796 telefonora.

### Jose Luis Senper hil zen urtarrilaren 11n

Jose Luis Senper urtearen 11. egunean zendu zen 58 urte zituela. Bortz seme-alabaren aita, azken boladan edari banatzaile bezala aritu zen lanean, baina hainbat urtez Aceralia fabrikan antolakuntza arduraduna izandua zen. Horrez gain, politikan egindako lanarengatik ezaguna zen Jose Luis. 12 urtez Berako Herriko Etxeko zinegotzi izan zen, lehenbiziko legealdia EAJrekin eta gainerakoak Eusko Alkartasunarekin, eta iazko hauteskundeetan EAko zerrendaburu bezala aurkeztu zen. Azken alderdi honen herrialdeko zuzendaritza batzordean ere parte hartu zuen.



## ▼ flash

**❖ 27ko greba**
Berako Greba Batzordeak bat egin du Euskal Herritarrok taldeak ortzegun honetarako egin duen greba deialdiarekin. Herriko enpresa, komertzio eta zerbitzu guzietako langileei bidalitako ohar baten bidez lanuztea egitera gonbidatzen ditu, presoen eskubideen alde eta Euskal Herriaren geroarengatik.

**❖ Dantzak**
Gure Txokoa Dantza Taldean izena emateko azken eguna urtarrilaren 29a jarri dute. Eztegara frontoian egonen dira arduradunak, eguerdiko 12etatik 1etara. Apuntatzeko baldintza bakarra 5 urte baino gehiago izatea da.

**❖ Sinadura bilketa**
Oinarriak taldea sinadurak biltzen ari da Nafarroan Euskararen Legea aldatzeko. Bertzeak bertze, Gure Txokoa elkartean sinatzeko aukera izanen da otsailaren 7a arte, astelehenero, arratseko 8etatik 9etara.

**❖ Paddy Rekalde**
idazlearen solasaldia ilbeltzaren 21ean egitekoa zen, baina 28ra gibelatu da. Ortziral honetan, beraz, ordu eta toki berdinean eginen du "Whiskey koloreko gauak" liburuaren aurkezpena: arratsaldeko 7etan Kultur Etxean.

Altzate, 19•948630786 •BERA

© 948630052•Zalain•BERA

ALZURI
• Sukalde tresneria eta opariak
• Landare eta loreak
Tel.: 948 630 370 • BERA

Javier Manterola
TEKNIKO INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa
Tfnoa: 948 630 031 • BERA

## ☞ LESAKA

# Cederna-Garalur erakundeak gestionatuko du Alkaiagako Enpresa Mintegia

Herriko Etxea Udalbiltzako kidea da abenduaz geroztik

AITOR AROZENA

Cederna-Garalur garapen agentziak gestionatuko du Alkaiagako industrialdean kokatuko den enpresa mintegia, Herriko Etxearekin sinatutako elkarlan hitzarmenaren arabera.

Jakina denez, Alkaiagako Alasta karrikan dagoen mintegi honetan lekua utzi nahi zaie enpresa bat sortu nahi dutenei. Lehendabiziko urteetan lekua debalde uzteaz gain, aholkua ere emanen zaie enpresari berriei (maileguak nola eskatu…). Behin enpresak aitzinera egiten duenean, kokagune berri bat bilatu beharko luke eta lekua utzi proiektu berriei.

Cederna-Garalur erakundeak hamar urterako dohain hartu du mindegiaren kudeaketa. Hori bai, horretarako arrazoien bat suertatuko balitz, laugarren urtetik aitzinera Herriko Etxeak gestioa berriro hartzeko modua izanen luke, sei hilabete aitzinetik abisua emanez gero.


Argazkia: Karmele

**Herriko historiari buruzko liburua aurkeztu da**

«Lesakako Historia, 1400-1830» liburua aurkeztu zen urtarrilaren 14an Herriko Etxean. Bidasoa Ikerketa Zentroak egin du idazlana eta Jose Miguel Ariztegi lesakarrak, herriko eta baserri auzoetako etxeen izenek historikoki izan duten bilakaeraren inguruan artikulu interesgarria argitaratu du.

### Lesakako Herriko Etxea Udalbiltzan

Abenduan egindako udal batzarrean ahobatez onartu zenez, Euskal Herriko Udal Hautetsien Biltzarreko (Udalbiltza) kide egin da Lesakako Herriko Etxea. Euskal Herria nazio bat dela aldarrikatu eta haren egituraketa politikoan lagundu nahi du Udal Hautetsien Biltzarrak.

### Bortzirietako bertso txapelketaren finala ortziralean Arranon

Ortziral honetan, urtarrilak 28, arratseko 9etatik aitzinera burutuko da Bortzirietako Bertso Eskolak bigarren urtez antolatutako txapelketaren finala. Bera, Igantzi eta Lesakan egindako kanporaketa saioen ondotik, bi hirukote sartu dira finalean: B taldea (Estitxu Arozena, Xabier Terreros eta Erika Lagoma) eta E taldea (Xabier Silveira, Manolo Arozena eta Saioa Mitxelena). Kanpoan ikasten duenez, Erika Lagoma ez da finalean izanen eta, seguraski, Alaitz Rekondok hartuko du bere lekua. Finala, Arranon eginen den afariaren ondotik hasiko da.

### Ilasmendiko tiro-zelaia

1.757.277 pezetako aurrekontua du Ilasmendiko herri lurretan eginen den plater-tiraketa zelai berriak. Guzira 44.114 metro koadro hartuko ditu zelaiak eta inguru guzia itxia izanen du. 14 metro koadroko ormigoizko lurpeko txabola bat eginen da eta platerak botatzeko makina bertan kokatuko da. Honen gibeleko aldean, 15 metrora, bortz metro zabal izanen duen idorpea jarriko da tiralarientzat. Lan guziak Pagolleta Ehizi Elkarteak eginen ditu eta berak ordainduko du oso-osorik.

## ▼ flash

❖ **Euskara ikastaroak**
Bortzirietako Euskaltegiak (IKA) euskara ikastaroetan matrikulatzeko aukera ireki du berriz ere. Astez maila guziak ematen ahal dira, eguerdi, arratsalde eta gauez. EGA edo Hizkuntz Eskolako 5. maila ikastaroa astelehenetik ortzegunera, arratsaldeko 6etatik 8etara edo larunbat goizeko 9etatik 1,30etara ematen ahal da.

❖ **Ibilgailu berria bonberoentzat**
Lesakako su-hiltzaileek ibilgailu berria jaso zuten urtarrilaren 15ean. Ibilgailua matrikulatu berria da eta 4,4 milioi pezeta gosta da. Nafarroako Gobernuaren izenean, Rafael Gurrea lehendakariordeak eman zuen autoa.

❖ **Euskal Demokraziari**
buruz EHk egindako proposamenaren azalpena eginen da larunbat honetan, urtarrilak 29, arratsaldeko 5etatik aitzinera Kasinon. Bideo emanaldiaren ondotik solasaldia izanen da.

kixkur
ileapaindegia
Tel: 948 637429
Bittiriako Plaza, 3 behea
LESAKA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 948 627 514
Beheko Plaza 8, LESAKA

Lore eta landareak
✆ 948 63 78 26
Frain auzoa • LESAKA

XATUBETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
✆ 948627573 • LESAKA

## ☞ ETXALAR

# Hogeigarren mendeko urte guziak harrapatu ditu Inaxi Portuk

1900garren urteko abuztuan sortua da

PELLO APEZETXEA

Urte gehiago bizi da gaur jendea, munduko eremu batzuetan, bederen. Gure artean ere gero eta bizitza luzeagoa du jendeak, baina ehun urte harrapatzea gauza bitxia da oraindik ere. Horregatik dugu berri berezia Iñaxi Porturena. Lesakan 1900ean jaioa, 1927an Antonio Olasagasti aranztarrarekin esposatu eta Etxalarrera etorri ziren bizitzera. Geroztik hemen da Iñaxi, gaur egun Urtzelai etxean. Eta oraindik aski ongi, adin horretarako. Hondarreko Egubérrietan egindako argazkian, etxeko bi biloba ttikiekin ageri zaigu.

### Biztanleen adina

Herrian zenbat bizilagun garen kontatzen aritzen gara, Gobernua ere horretan saiatzen da. Zenbatekoaz gain, nolakoa jakitea ere interesgarria da, errate baterako, ze adinekoak garen herritarrak. Hara, bada, zenbait xehetasun: zerotik bortz urte arteko haurrak 19 dira, 6tik 10 arteko bertze bortz urteetan 33, 20-24 urte arteko gazteak, berriz, 55.

Ikusten ahal denez, diferentzi haundiak. Hondarreko hauek gaurko haur adinekoak baino aunitz gehiago baitira.

### Telebista ongi ikusteko gastatu beharra

Herriko alde batzuetan telebista edo telebistako kanalen bat ikusten ez dela eta, igorle gehiago paratu beharra erran zion teknikariak Udalari, zera alegia, iduriak ongi hartzen diren tokitik ikusten ez direnera igorriko dituzten tresnak paratu beharra. Kostua 930.000 pezetakoa izanen omen da.



Inaxi Portuk ehun urte beteko ditu abuztuan. Argazkian bi biloba txikiekin.

### Gero eta errenkura gehiago kontsultako deiagatik

Gero eta errenkura gehiago sumatzen da, mediku kontsultarako aintzinetik telefonoz deitu beharragatik. Seguru aski, errenkurak ez dira Osasunbideko arduradunengana ailegatzen. Nahiz eta, ailegatuta ere, ez dituzten aisa aintzat hartzen egiten zaizkien eskariak. Aspaldi galdetu zen, errate baterako, larrialdiko zerbitzuak bertze modura behar zuela funtzionatu. Telefonoko erantzunetik hasita, euskaraz ere egitetik hasita, alegia. Ez dakigu Bortzirietako Osasun Kontseilua gai hauetaz solastu den.


ANA
janaridenda
Bittiria, 41• © 948637518
LESAKA

Txema Etxarte
Zolen akutxilatze eta bernizatze profesionala
© 948 637439 • 670 215604 • 31700 LESAKA

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA



© 948631076 • BERA

loredenda
Albistur, 39-K
☎ 627542
LESAKA
• bitxikeriak •
• opariak •
• enmarkazioak •

Elena Etxea
Presta zaitez Iñauterietarako, Ez utzi azken egunerako!
Telak, pelukak, txanoak, mertzeri eta osagarrietan aukera zabala
© 948 637106 • Plaza Berria 2 • LESAKA



BORTZIRI
UNSION ANAIAK
sukalderako haltzariak
ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxa: 948 637 266

## ☞ IGANTZI

# Igantziko Udalbatzak ere baiezkoa eman dio Udalbiltzari

### Erabaki garrantzitsuak hartu ziren ilbeltzaren 17ko bilkuran

OSKAR TXOPERENA

Zenbait erabaki garrantzitsu hartu zituen zituen herriko Udalbatzak ilbeltzaren 17an egindako billkuran.

Bertze herritan baino beranduxeago hartu dute Igantziko zinegotziek Udalbiltzan sartzeko erabakia. Mozioak dioenez, Udalbiltzaren partaide izateko asmoa agertu du Udalak eta, ondorioz, bere helburuekin bat datorrela adierazi.

Bilkura berean, Iruñea eta Tafallaren arteko herrietako ordezkariei beren solidaritatea eskaini zieten. Jakina denez, herri hauen inguruan pasatzen den NA-121ean istripu aunitz eta larriak gertatzen dira, eta ondorioz, «A-15 autopista dohainik» izatea eskatzen dute.

Horretaz gain, bertze zenbait punturen artean, Herriko Etxeko leihoak txukuntzeko lanak hastea eta Sunbillako muga inguruan telefono mugikorrentzako dorre bat paratzeko baimena ematea erabaki zuten.



**Eguberrietako ospakizunen ondotik, ikasturte berriari ekin diote haurrek**

Eguberrietako kontuak alde batera utzita gogor ekin diote berriz ere haurrek ikasturteari. Halere, beti izaten dira lana xamurtzeko aukerak: elurretako kanpaina, igeriketa ikastaroa, iñauteak, etabar. Argazkia aurtengo eguberrietako eskian Argatagarai baserrian aterea da. Oskar Txoperena

### Arkupeak

Otsailaren 4an dute hitzordua Arkupeak jubilatu elkarteko Igantziko bazkideek urteroko besta egiteko. 12etan izanen dute meza eta ondotik bazkaria Herriko Etxeko jatetxean. Izena eman ez duenak oraindik igandera arte izanen du astia, herriko ordezkariarengana hurbilduz.

### Elurretako kanpaina

Otsailaren 6an dira joatekoak eskolako 5. eta 6. mailako haurrak Isaba inguruko eski pistetara eskiatzen ikastera. Aste osoa pasatuko dute, inguruko herrietako haurrekin batera. 3. eta 4. mailakoak, berriz, hilabete osoan, astean bitan, Etxalarko Bentako piszinan izanen dituzte soinketa ikastaroak. Modernitatearen abantailak: batzuk eskiatzen ari diren garai berean bertze batzuk piszina epel-epelean.

### Euskararen Legea aldatzeko sinadura bilketa

Hagitz martxa ona darama herriko Euskara Batzordea egiten ari den sinadura bilketa. Nafarroan euskararen legea aldatzeko egiten ari den kanpainan, dagoeneko 150 sinaduratik goiti daude bilduak etxez-etxeko lana eginez.





ZALAIN JATETXEA
Zalain Auzoa
✆ 948631106
BERA
Boda eta banketeak ematen dira

BERRIZUN S.L.
...akinaria eraikuntza
...oldaketak eta despiezea
...antenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak
Igantziko Bentak • ✆ 948627572 • Faxa: 948637313

Alberto RETEGI
abokatua
Altzate 17
BERA
✆ 948 630 763


MOLDAKETAK
KONPONKETAK
Gizon eta emakumeen arropan konponketak eta moldaketak egiteko zerbitzu azkarra
RETOUCHERIE de Manuela
Colon Pasealekua 64, behea (Trenbideko zubiaren ondoan)
✆ 943 660 292 • IRUN

ola SAGARDOTEGIA
250 lagun eserita
Klimatizatua
Sagardotegi menua
102 Meaka auzoa
20304 IRUN
Tel: 943 623 130


LESAKA

☞ **ARANTZA**

# Nafarroako Euskararen Legea aldatzeko sinadurak biltzen ari dira Herriko Etxean

## Oinarriak Plataformak hasi du firma bilketa kanpaina

ELIXABET ETA GARBIÑE

Oinarriak Euskal Plataformak egin duen proposamena, hau da, Euskararen Lege berri bat Nafarroako Gobernura helaraztea, eskualdeka aurkeztu da eta hau aitzinera ateratzeko sinadura bilketa eginen da herriz herri. Euskara Batzordeak eginen du gure herrian kanpaina hau eta horrela, datozen bi asteetan, nahi duenak Herriko Etxeko idazkaritzatik pasatzen ahal da firmatzera. Legea aitzinera ateratzeko 25.000 sinadura bildu behar dira Nafarroan eta gure herrian, berrehun bat.



**Santaketan eskean ibili ziren herriko gazteak**
Aspaldiko usadioari segituz, herriko gazteek aurten ere Santaketan ibili ziren. Bi egunetan hamabortz laguneko taldea ibili zen etxez etxe gauari eta eguraldi txarrari aurre eginez, kantu eta dantzak etxe eta baserrietara zabaltzen. Aurten ez zuen Gazte Asanbladak antolatu, baizik eta gazte talde batek. Horrela, atera duten dirua ere haientzat izanen da, afaria eta ateraldi bat egiteko asmoarekin baitabiltza.

### Euskara ikastaroak

Bortzirietako Euskaltegiak eta Euskara Mankomunidadeak euskara ikastaroa antolatu du herrian. Oinarrizko euskara erakutsiko da, bai leitzen baita idazten ere eta herrian taldea osatuko balitz, bertan emanen lirateke klaseak. Ikastaro honen egunak eta orduak apuntatzen direnen artean erabakiko direnez, hurrengoan emanen dugu horren berri. Apuntatzeko epea urtarrila eta otsailean izanen da eta horretarako ere Herriko Etxera joan beharko da.

Bertzalde, euskara ikastaro kontuekin segituz, Bortzirietako Euskaltegiak (IKA) euskara ikastaroetan matrikulatzeko aukera ireki du berriz ere. Astez maila guziak ematen ahal dira, eguerdi, arratsalde eta gauez. EGA edo Hizkuntz Eskolako 5. maila ikastaroa astelehenetik ortzegunera, arratsaldeko 6etatik 8etara edo larunbat goizeko 9etatik 1,30etara ematen ahal da.

### Udal ibilgailu berria

Aspaldiko aipatu bagenuen ere, berriro aipagai dugu Herriko Etxeak dagoeneko erosia daukan Land-Roverra. Oraindik ailegatu ez bada ere, laister herrian barna ikusi ahal izanen da ibilgailu hau.




Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317
HARRI NATURALA
ATERATZEA eta LANTZEA
Antzinaldeak, Angeluak, Orma antzinak, Leihoak, Ateak, Arkuak, Pilareak
Tximiniak, Erlaizak, Moldurak, Zokaloak, Hilarriak, Marrazkiak
'Abujardadoa' Zahar antzekoa
Mazizoa Txapeatua
ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK



ALBERGEA
JATETXEA
✆ 948 634179
ARANTZA

SAROBE
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

Bakailuak
Inportazioko bakailua
Kalitate onena • Faroe irletakoa
☛ BAKAILU GEZATUA BERE PUNTUAN
Enkarguak hartzen dira
San Juan Plaza, autobus geltokian • Tel: 943 627131 • IRUN


LANCHAS
• Parketak - Tarimak
• Kutxillatzea eta bernizatzeak
• Estaldura Orokorrak
Bera ✆ 948630735
Irun ✆ 943622305

## ☞ OITZ

# Ezpeldegia eta Loiketako pagoak ateratzeko deialdia egin da

### Proposamenak otsailaren 4a baino lehen aurkeztu behar dira

TTIPI-TTAPA

Oizko Udalak, Loiketa eta Ezpeldegia inguruetan dauden 386 pago aprobetxatzeko oihan enkanterako deialdia egin du. Guzira 701 metro kubiko zur emanen dute eta haserako prezioa 10.164.765 pezetakoa da. Prezio honi BEZa gehitu beharko zaio. Proposamenak otsailaren 4ko eguerdiko ordubata baino lehen aurkeztu behar dira Oizko udal bulegoetan, haserako prezioaren %2a fidantza gisara ordaindu dela segurtatzen duen ziurtagiriarekin batera.

Bertzalde, asteburu honetan ospatu dituzte iñauteriak Oitzen.

Ortziralean, Joxe Angel akordeolariarekin batera etxez etxe eskean ibili ziren eta gero afaria egin zuten soziedadean. Biharamon goizean gosaldu ondotik, berriz ere itzulixka egin zuten herrian barna, besta giroa eta umorea xoko guzietara hedatuz. Larunbateko eta igandeko bazkariak soziedadean egin zituzten berriz ere.

Oizko iñauterien ondotik, Ezpelura aldean Urrotz eta Donamariakoak etorriko dira, baina gazteek oraindik ez dituzte besta egunak zehaztu.

## ☞ SALDIAS





### Baztango pilota txapelketatik hiru txapel ekarri dituzte

Saldiasko pilotari gaztetxoek emaitza ederrak eskuratu zituzten Baztango XVIII. pilota txapelketan. Aurrebenjaminetan, Aritz Juanenea Andiarena saldiastarrak eta Unai Madariaga Iribarren urroztarrak irabazi zuten finala. Aritz bezala, Alain Ezkurra eta Oskar Urrutia ere txapeldun suertatu dira alebinetan. Esan beharrik ez dago, herriko jendea eta pilotazaleak gustora aski daudela emaitza hauekin eta horrelaxe segitzea espero dute. Pilotaren etorkizuna segurtatua dago Saldiasen.




J. RAMOS

Zolak akutxilatu eta barnizatzen dittut

© 948631342 BERA•© 948637172 LESAKA



APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

EDARIAK

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

## ☞ MALERREKA



### Mendi abesbatza Hendaian

Berri iturri agortezina da azken aldian Doneztebeko Mendi abesbatza. Lehengoan diskaren berri eman genuen eta oraingoan, larunbat honetan, urtarrilak 29, Hendaiako elizan eskainiko duten emanaldia aipatu behar da.

# Udalbiltzako kide egin dira Oitz, Urrotz eta Donamariako Udalak

Ahobatez hartu zuten erabakia hiru batzarrek

TTIPI-TTAPA

Euskal Herriko bertze herri auniztan bezalaxe, Ezpelura aldean ere Udalbiltzako kide egin dira Herriko Etxe batzuk. Honela, Donamariako Udalak abenduan egindako batzarrean ahobatez erabaki zuen baiezkoa ematea. Oitz eta Urrozko Udalek, berriz, ilbeltzaren 18an egindako batzarretan sartu ziren Udalbiltzan. Beintza-Labaienen ez dute oraindik gaia aztertu.

### Santa Ageda bezpera Beintza-Labaienen

Beintza-Labaiengo bertso eskolako neska-mutikoek ekitaldi berri bat antolatu dute aurtengo Santa Ageda bezperarako. Otsailaren 4an, arratsaldeko 4,30etan elkartuko dira eta trikitilarien laguntzaz, kopla doinuak zabalduko dituzte bi auzoetan eskean dabiltzan bitartean. Etxeetan ematen dietenarekin berendua eginen dute. Haurrek beraiek prestatu dituzte bertsoak eta errepikak berriz, ohikoak izanen dira. Duela hiru ikasturte sortu zen bertso eskola Beintza-Labaienen eta gaur egun hamar haur biltzen dira astero.

### Kontzertuak Doneztebeko Kaxerna ostatuan

Larunbat honetan, urtarrilak 29, arratseko 10etatik aitzinera, Iruñeko Kizio hardcore taldeak joko du Kaxerna ostatuan. Joan den larunbatean, Erriberriko KGI punk taldea aritu zen.

### Iturengo Ibintza taldearen zozketako bi sari agertu gabe segitzen dute

Iturengo Ibintza Kultur Taldeak antolatutako zozketaren lehendabiziko eta hirugarren sariak lortutako txartelak ez dira oraindik agertu. Lehendabiziko saria (Eguberrietako saskia eta telebista bat) 2314 zenbakiari egokitu zaio eta hirugarrena 1801 zenbakiari (Afaria Altxunea erretegian).

Bertze saria, bigarrena, atera da. Albineako Maite Ariztegi Etxepetelekuk eraman du bizikleta, bera baitzen 1771 zenbakiaren jabea.

Lehendabiziko eta hirugarren sariak agertzen ez badira, otsailaren 5ean, Iturengo iñauterien kontuen egunean hain xuxen, zozketatuko dira berriro, beraz, ongi begiratu sakelak.

### Traktoreen ITVa

Traktoreen Azterketa Teknikoa egiteko bulegoa Malerrekan barna dabila egunotan. Ilbeltzaren 20an Oitzen, 21ean Iturenen, 24an Urrotzen, 25ean Labaienen eta 26an Saldiasen izan zen. 27an Ezkurran izanen dira, 29an Eratsunen eta otsailaren 7an Zubietan.




BELARRA
OSTATUA - JATETXEA
Ameztia karrika • DONEZTEBE
Tfnoa: 948 45 03 06



AMEZTIA
Jatetxea - Hostala
Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan
Tfnoa: 450028 • DONEZTEBE

CONSTRUCCIONES SALDIAS
ETXEGINTZA OROKORRA
Teilatu eta fatxada berritzetan espezializatuak
Pintura lanak eta gremio guziak
✆ 607 434397 • 619 058264 • LEGASA
NAFARROA GUZIAN ARITZEN GARA




TRIKITIXA eta AKORDEOIAREN GOI-MAILAKO AKADEMIA
Angel Manuel Belio
Domiñenea-San Andres • NARBARTE • ✆ 943 615055

ttipi-ttapa
7.100 harpidedun
24.000 irakurle
Zure publizitatea etxe xoko guzietan
✆ 948 63 11 88

ETXANDI TXOKO jatetxea
Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN
✆ 948 450 491

## ERATSUN

# Mozorro eta kopla ugari herriko iñauterietan

Modesto akordeolaria eta Peñagarikano bertsolaria etxez etxe ibili ziren

TTIPI-TTAPA

Herri txikia da Eratsun, horretaz ez da dudarik. Berrehun bat bizilagun bertzerik ez ditu, baina iñauteriak ospatzeko umore eta giro berezirik ez da inoiz faltatzen. Eta aurten ez da gutxiago izan.

Larunbateko bazkariarekin hasi ziren ospakizunak. Bazkal ondoko epeltasunean, bakoitzak bere mozorroa jantzi eta etxez etxeko eskea hasi zuten, iñauterietako gastuak ordaintzeko sosa lortzeko asmoarekin. Hogei bat gaztek egin zuten itzulia, Modesto akordeolaria eta Angel Mari Peñagarikano bertsolaria lagun zutela. Claudio Retegik ematen zizkion azalpenak aditu ondotik, Peñagarikanok etxe bakoitzeko bizilagunei buruzko kopla osatzen zuen. Gero gazteek egiten zuten errepika..

Bi orduz Eratsungo bi auzoetan barna ibili ondotik, soziedade berrira itzuli ziren afaltzera. Aurtengoak izan dira lehendabiziko iñauteriak elkarte berriarentzat eta ederki aprobetxatu dute, bertan egin baitira otordu guziak. Larunbateko afarian, Juan Ignacio eta Julian Retegi pilotariekin batera, Migel Mindegia aizkolaria izan zen.





**Goiko argazkian, Nekane eta Gaizka Bendoiro, Beñat Retegi, Daniel Garcia, Xabier eta Alazne Jaurena eta Iñaki Estanga mozorroturik. Behean, Peñagarikano bertsolariak parte hartu zuen etxez etxeko eskean.** Diario de Navarra

## MALERREKA

# Ezpelurako erretiratuen besta igande honetan

Doneztebeko Jubilatuen Egoitzan izanen da

Igande honetan, urtarrilak 30, Ezpelura errekak bustitzen dituen herrietako jubilatuek beraien urteko besta ospatuko dute Doneztebeko Jubilatuen Egoitzan. Doneztebe, Donamaria, Oitz, Gaztelu eta Urrozko erretiratuek ez dute aldaketa haundirik izanen urtero bezala Arkupeak elkarteak prestatutako programan. Goizeko 11,30etan, urte honetan hildako bazkideen omenez Meza izanen da. Gero bazkaria izanen da, arrain zopa, legatza eta azpizunarekin, baita ondotik etorri ohi den guziarekin. Bazkalondoa alaitzeko dantzaldia izanen da, arratseko 7,30ak arte. Egun osoaren prezioa 3.000 pezetakoa da.



**Arkupeak elkarteko erretiratuek hitzordu berri bat dute igande honetan.** Artxibokoa

## SUNBILLAko Iñauteriak

# Denak karrozen esperoan


Argazkia: ZALDUA

Herri batzuetan iñauteriak ospatu dituzte dagoeneko, baina entzute haundiena duten iñauteriak asteburu honetan hasiko dira. Sunbillako karrozek gero eta ikusmin gehiago sortzen dute inguruko jendearen artean, eta igande honetan herria ikuslez beteko da berriz ere. Ituren eta Zubietan ere asteburu honetan hasiko dituzte iñauteriak.

SUNBILLAKO UDALA

Ongi pasa iñauterietan!

SUNBILLA

SUNBILLAKO UDALAREN LAGUNTZAREKIN EGINDAKO GEHIGARRIA





Iaz Sunbi
ziren kar
batzuk. E
hasita, u
tilak ban
tuena, Ma
fa eta Pa
kin. Ezk
Sunbilla
bic talo
eskuinea
rietako b
irudi

Argaz
ZALI

Urtetik urtera ikusgarriagoak dira Sunbillako iñauteriak. Aurten 16 urte beteko dira karrozak ateratzeko ohitura berreskuratu zela, eta gehigarri honetan urte hartako eta iazko urteko argazkiak bildu ditugu. Diferentzia ez da nolanahikoa.

### Ortziralean, puxka biltzea eta emakumeen afaria

Ortziralean hasiko dira iñauteriak Sunbillan. Goizeko 9etan, herriko gazteek Itturburun gosalduko dute. Otordua akautu orduko baserriz baserri aterako dira eskean. Eguerdi alderako berriz gosetzen badira baserrietan bapo bazkaltzeko aukera izanen dute. Herrian, berriz, haurrek 4,30ak aldera txokolatada izanen dute.

Ilunabarreko 8-etan, Herrikoetxeko arkupetan akordeoilariek jarriko dute afal-

Juan Luis Apeztegia
Garraioak
Leku Eder, 2-1.C • ☎ 948 450778 SUNBILLA
Mobila: 639-723673

SANZBERRO
eraikuntzak
Donibane karrika
Tfnoa: 948 45 00 95
SUNBILLA

Ongi pasa iñauterietan
Ezkontza, bataio eta jaunartzetan banatzeko opariak
Gindal ibiltokia, 3 1.D
Tfnoa: 948 45 08 44
SUNBILLA

ARRUTI BOTIKA
Karrika Nagusia ☎ 948 45 02 75 • SUNBILLA

MAIA
HERRIKO OSTATUA
Karrika Nagusia
☎ 948 45 01 54
SUNBILLA

llan ikusi
rozetako
zkerretik
rtero tor-
atzen di-
aria Jose-
askuale-
kerrean
ko aero-
lea, eta
n iñaute-
bertze bi
polit.

zkiak:
DUA





du aitzineko giroa. Arratseko 10etan emakumeek Ulibeltza aldera joko dute elkarrekin afaltzera, eta gero musika izanen da Salaberriren eskutik. Gazteek berriz, Elortxurin afalduko dute.

### ...larunbatean, berriz, gazteen afaria

Ortziralean Itturburun gosaltzen badute, biharamonean Iruribietan dute zita sunbildarrek. Gero etxez-etxe eskean ibiliko dira, baina oraingoan herrian barna. Bazkaltzera Fonda ostatura bilduko dira gosetzen hasi orduko, eta bazkaria ederki luzatuko dute arratsaldean. Ilunabarrean musika izanen da Udaletxeko arkupeetan akordeoilariekin. Gero gazteek herriko ostatuan afalduko dute giro ederrean. Aipatu behar da egun honetan Duikabe taldeak bere debuta eginen duela Fonda ostatuan. Sunbilla, Urrotz eta Leitzako lagunek osatzen dute Duikabe.

### Igandea, iñauterietako egun haundia

Igandean kanpoko jende andana etortzen da Sunbillara, aitzineko asteetan prestatu dituzten karrozak ikustera. Goizeko 11,30etan hasten da desfilea, eta hotza kentzeko tortila pintxoak banatuko dituzte publikoaren artean.

Eguerdiko 2etan Ulibeltzak elkartean bazkalduko dute lehenagotik otordurako izena eman dutenek. Bazkalondoa Jalisko Banden kantu alaiek girotuko dute. Ongi pasa iñauteriak!

RURAL KUTXA
Lekueder z/g
✆ 948 45 03 58
SUNBILLA

Maria Jesus
HARATEGIA
Karrika Nagusia, 11
Tfnoa: 948 45 15 30
SUNBILLA

ESPELOSIN
ERAIKUNTZAK
Auloa Baserria
Tfnoa: 948 45 07 73
SUNBILLA



1999an eski jautsiera ikusgarri hau prestatu zuten gazte batzuk. Sumo eta aerobic-eko karrozekin batera jendeari ajari gehien atera zizkiena izan zen.

Zaldua





KONTXA
GASOLINDEGIA

**SUNBILLA eta DONEZTEBE artean**
✆ 948 45 02 72 / 948 45 07 87
Faxa: 948 45 08 10

ULIBELTZAK
ELKARTEA

Leku Eder, 1
**SUNBILLA**



1984. urtean egin zen lehendabiziko karroza desfilea Sunbillan. Orduko hartan aitasantuaren papera egin zuen Juanjo Ibarrak, Pedro Mari Altzurik gidariarena, eta Juan Antonio Ibarra, Mario Mitxelena, Jose Apeztegia eta Josetxok eskoltarenak.

Lizun
Gaztandegia
Etxeko Ardi Gazta
Petxenekoborda
✆ 948 45 08 62
SUNBILLA

MARISOL
JANARIDENDA
Karrika Nagusia, 7 - Tfnoa: 948 45 06 08 - SUNBILLA

GAZMENDI
eraikuntzak
San Juan karrika • Gure Borda
SUNBILLA
Tfnoa: 948 450130 - 948 451666

IBARBURU
ERRETEGIA
Ibarburu
Erretegia
Brasan egindako arrain eta haragietan espezializatua
Aupa Sunbillako iñauteriak!
Iruña-Irun errep, 59.km • ✆ 948 45 17 62
DONEZTEBE

IRURIBIETA
OSTATU - JATETXEA
Irun-Iruña bidea, 61,5. Kma
☎ 948 45 03 99 • SUNBILLA

IRIBARREN
FONDA
eta
HARATEGIA
Donibane karrika
Tfnoa: 948 45 01 80
SUNBILLA

## Ituren, Zubieta eta Aurtizko Iñauteriak

# Mozorro eta joaldunen egunak


Argazkia: Maite Ariztegi

Kanpotik ikusita Sunbillako iñauterien antitesia dira Ituren, Zubieta eta Aurtizkoak, bainan horrek ez du erran nahi hauek bezain ikusgarriak ez direnik. Alderantziz, iñauteri hauen arrakasta argi eta garbi erakusten du bazter guzietako prentsaren artean bixten duten ikusminak. Ikusi behar aurten mozorroek zer sorpresa prestatzen diguten! Ez da makala izanen…

### Ortzegunean hasten dira iñautik

Iñauterietako egun haundia heldu den astelehena baldin bada ere, berez ortzegun honetan hasten dira iñauteriak Iturenen. Ilunabarrean 8 lagun –6 joaldun, zareduna eta ardoa eramaten duena– juntatu eta etxez etxe ibiltzen


Ituren eta Aurtizko joaldunek ardi bizkar-larrua eta koloretako lepokoak janzten dituzte. Asteartean eginen diete bisita zubietarrei.
Maite Ariztegik utzia

ITVRENGO HERRIKO OSTATVA

Ongi pasa iñauterietan!
948 450325
ITUREN

ETXANDI TXOKO
jatetxea
Bazkari, afari eta gosariak
Ongi pasatu iñauterietan
ITUREN • ✆ 948 450 491

Iñauteriak umore ederrean pasa itzazue!
ITURENGO UDALAREN LAGUNTZAREKIN EGINDAKO GEHIGARRIA

dira puxka bilduz. Gero afaria egiten dute elkartean.

Larunbatean afaria Aurtizko elkartean egiten dute, eta igandean bazkaria Iturengoan.

## Astelehena eta asteartea egun haundiak

Astelehenean goizean goiz gosaldu eta joareak jaunzten dituzte Aurtitz, Zubieta eta Iturenen. Eguerdiko 2,30ak aldera zubitarrak Aurtitzera joaten dira eta karriketan barna ibili eta gero salda eta arraultz egosia ematen zaie elkartean. Indarrak berritu ondotik Iturenera abiatzen dira, Lasagan Iturengo joaldunekin topo egiteko. Iturenen elkarrekin bertze ikuskizun bat eman ondotik bakoitza bere herrira bueltatzen da bazkaltzera.

Asteartean iturendarrek bisita itzultzen diete Zubietakoei, beti ere Aurtizko joaldunak bidean hartu ondotik. Biharamonean oraindik bazkaldu eta afaldu elkarrekin egiten dute elkartean.

## Kontuen eguna

Aste honetan otorduz otordu eta tragoz trago ibiliko dira Ituren, Aurtiz eta Zubietako bizilagunak, gastuei sobera begiratu gabe. Diru kontuak errepasatzeko otsailaren 5ean bilduko dira, baina hori ere afari baten inguruan, nola ez. Hurrengo egunean iñauterietako gastuak pagatu behar izaten dira denen artean.



**Mozorroen basakeria da Ituren, Zubieta eta Aurtizko iñauterien ezaugarrietako bat. Barrenak hustutzeko bertze modu bat izan daiteke, batzuek ulertzen ez badute ere.**

Iturengo Herriko Ostatuak utzia

AURTIZKO OSTATUA
Berezitasunak
Arrain eta mariskoak parrillan

ERRANDONEA
OSTATUA
Iñauterietan giro paregabea
✆ 948 450216 - ZUBIETA

Ortziral gauez, larunbat eta igandetan irekia
Besta egunetan eta bezperetan irekia
Iñauterietan egunero zabalik
ITUREN
✆ 948 450410 • Ituren

Neguko ordutegia
Asteartetik ortziralera goizeko 11tatik 1a arte
Larunbat-igande eta jai egunetan goizeko 11etatik 2ak arte
Arratsaldez zita eskatu behar da
Astelehenetan itxita

Prezioak

| | |
|---|---|
| Helduak | 400 pta |
| Jubilatuak | 200 pta |
| Haurrak | 200 pta |
| >15 laguneko taldeak | 200 pta |

Zubietako Udala

# SASOI

ESKABAZIO
ETA GARRAIOAK





• LUR MUGITZEAK • LUR ZANPATZEAK •
• LUR BERDINKETAK • URBANIZAZIOAK •
• KANALIZAZIOAK • GARRAIOAK •





**Leku-Eder, 4 - 1.D • Tel.: 948 45 15 96 • Mugikorra: 608 77 93 66**
**31791 SUNBILLA (Nafarroa)**

# ☞ KIROLA

## Zortzi hirukotek hasi dute Baztan-Errekako lehen Paxaka txapelketa

Urtarrilaren 15ean abiatu zen Laxoa Elkarteak lehen aldiz antolatutako Baztan-Malerrekako paxaka txapelketa. Guzira zortzi hirukotek eman dute izena, hiruna Oitz eta Doneztebetik eta bana Arraioz eta Iruritatik.

Lehen jardunaldian, Oitzeko hirukote batek (Grajirena eta Mendiola anaiak) 9-4 irabazi zion Arraiozko taldeari (Karrikaburu, Gamio eta Laurnagarai).

Doneztebeko bi talderen artean jokatutako norgehiagoka borrokatuan, Etxeberria, Arraztoa eta Mariñelarenak osatutako taldeak 9 eta 6 irabazi zion Aldabe, Artazkoz eta Ibarrolaren hirukoteari, nahiz eta hauek 6-2 irabazten hasi.

Doneztebeko bertze taldeak (Iribarren, Ganboa eta Apezetxearen ordez aritu zen Ziganda) 9 eta 5 irabazi zion Oitzeko bertze talde bati (Fagoaga eta Ariztegitarrak). Peio Iribarrenen sakeak erabaki zuen partidua.

Azkenik, partidurik orekatuenean Iruritak (Prim, Mitxelena eta Unanua) 9 eta 6 irabazi zion Oitzeko hirugarren taldeari (San Migel, Mindegia eta Zelaieta). Haseran, talde bakoitzak bere sakeari eutsi zion eta seina berdindu zuten, baina gero baztandarrak nagusitu ziren.

Paxaka txapelketaren bigarren jardunaldia larunbat honetan, urtarrilak 29, jokatuko da Iruritan.

## Bidasoaldeko futbito txapelketa igandero Doneztebe eta Sunbillan

Bidasoaldeko futbito txapelketa urte berriarekin hasi zen eta dagoeneko jardunaldi batzuk jokatuak dira. Lehen aldiz, Doneztebe eta Sunbillan batera jokatzen ari dira lehendabiziko fasea. Honela, igande arratsaldetan Sunbillako nahiz Doneztebeko eskolako pilotalekura joan, bietan izanen da partiduren bat ikusteko aukera. Hamasei talde ari dira lehian, lau multzotan banatuak. Faboritoei dagokienez, azken bi urteotako txapelduna, Titi Ostatua, indartsu hasi da eta jokatutako hiru partiduak irabazi ditu. Bertze horrenbertze egin du Sunbillako Fonda Ostatuak. Multzo bakoitzeko bi lehendabizikoak sartuko dira final laurdenetan.



U L KUTX K
L GUN UK IZU
. .C. EGITEN

NAFARROAKO RUR L KUTXA

## ☞ GOIZUETA

# Mendia eta basoa zaintzeko bi deialdi luzatu ditu Herriko Etxeak

### Plantazio berrietatik kanpo alhatu beharko dira aziendak

ESTEBAN AROZENA

Basoa edo, orokorrean hartuta, mendiari buruzko bi deialdi luzatu berri ditu Udalak. Lehenengoan, betidanik gauza jakina den arren, mendiaren edozein aprobetxamendu egin aurretik monteroak jakinaren gainean paratzearen beharra aipatzen da. Horrela, matarasak, entresakak, piketeak, etabar… egiteko basozainak berak neurtu behar du egurra mozketa-baimena bideratzeko. Hau guztia honela egin ezean, mendietako legearen arabera isunak emanen omen dituzte.



**Aste batzuen barrenean hasiko diren zeharbidearen lanek gasa ere ekarriko omen dute herrira.** Artxibokoa

Gai berarekin segituz esan, bukatu berriak diren Biribilta, Kanalazpi, Ixkibi, Haritza, Kapelugorriko borda eta Jauzko inguruetako plantazioetan aziendak alhatzea debekatuta dagoela. Neurri bera egonen omen da indarrean aurrerantzean eginen diren errepoblazioetan.

### Gasa eta telefonia mugikor zerbitzuak herrian

Oraindik deus ofizialik ez baldin bada ere, moda-modako bi zerbitzu laister hemen izanen ditugulakoaren zurrumurruak aditu dira. Badirudi, aste batzuen barrenean hasiko diren zeharbidearen obrek gasa ere ekarriko dutela etxeetara. Repsol eta Cepsa konpainien arteko lehia lehenengoak irabazi dezake. Udalaren esku dago erabakia.

Telefono mugikor edo sakelekoek ere kobertura izan dezakete epe motzean gure herrian. Amena konpainiak Olasoko gainean antena jarri ahal izateko gestioak hasi omen ditu dagoeneko.

## ☞ ARESO

# Auzolana kendu eta zergak zerbait igotzea erabaki du Udalak

### Herriko lanak langabezian daudenek eginen dituzte

JUANA Mª SAIZAR

Orain arte urtean hiru egunetako auzolanak egitea derrigorrezkoa izaten zen, baina azkeneko udal batzarrean auzolana kentzea erabaki zuten. Horren ordez, hiri eta landa-lurren kontribuzioa, zaborra, ura, etabarreko zergak pixko bat igotzea erabaki da 2000. urtean. Mendia garbitzeko eta zaintzeko lanak pertsona prestatuen esku utzi nahi dira horrela. Eraberean, herriko lanak langabezian dauden jendearekin egin nahi dira.

### Ingeles klaseak

Otsailean hasiko dira ingeles klaseak. Astean bi egunez emango dira klaseak, bakoitza ordubetekoa.

### Traktoreen Azterketa Teknikoa

Traktoreen eta nekazal ibilgailuen Azterketa Teknikoa (ITV) herrian egingo da martxoaren 1ean.




**Martxoaren 1ean etorriko dira traktoreen ITVa egitera.** Artxibokoa

### Musika eta antzerkia

Joan den urte bukaeran bezala, herriko eskolako umeak kontzertua aditzera joan dira berriki Berriozarrera. Musika-tresnak aditzeaz gain, hauei buruzko azalpenak eman zieten *«Jostun ausarta»* antzeslanaren bidez.

## LEITZA

# Oinarriak taldearen sinadura bilketa kanpaina abiatu da

### Euskararen Legea aldatzeko 25.000 sinadura biltzea du helburu

JOSEBA AZPIROZ

Ilbeltzaren 14an, Euskara Teknikariak eta Oinarriak taldearen ordezkari batek, talde honen azken kanpainaren berri eman zieten Aurreran bildutako 27 lagunei. Gaur egungo Euskararen Legea euskarak duen traba handienetakoa dela baloratu ondoren, Oinarriak taldeak proposamen berri bat egiten du. Proposamen berri honen ideia nagusia zera da, euskara ofiziala behar duela izan Nafarroako lurralde osoan, legearen aurrean nafar guztiak berdinak garelako eta Nafarroa lurralde elebiduna delako. Euskalgintzan lanean aritzen diren taldeen bilgunea den Oinarriak taldeak proposamena Nafarroako Parlamentuan aurkeztu nahi du, 25000 sinadurekin batera. Sinadura horiek biltzeko, lehendabizi aipatutako testua eta honen laburpena, etxez-etxe zabalduko dute (buzonetara). Ihauteri ondoren berriz, etxez-etxe pasako dira proposamenaren aldeko sinadurak biltzera. Leitzan, gutxienez 800 sinadura bildu nahi dira. Gure hizkuntz eskubideak aldarrikatzeko beti da garaia. Beraz, parte har ezazu.



Euskara teknikariak eta Oinarriak taldearen ordezkari batek sinadura bilketa kanpainaren berri eman zuten Aurreran. Argazkia: Joseba

#### Mendibil mendi taldearen batzarra larunbatean zortzi

Otsailaren 5ean, larunbata, arratsaldeko 5etan, Aurrera Kirol Elkartearen egoitzan, Mendibil mendi taldearen bazkideen batzarra eginen da. Honako gai zerrenda izanen dute: 1. Elkartearen aurkezpena; 2. elkartearen funtzionamendurako arautegia; 3. 2000. urteko egitaraua eta 4. batzordearen aukeraketa.

Bestalde, hilaren 30ean, igandea, goizeko 8etan plazatik aterako den Leitzelarrean barnako ibilaldia antolatu dute.

#### Hautesle-Zentsua

Martxoaren 12an Senatu eta Kongresurako Hauteskudeen deialdia dela eta, udal bulegoetan egonen dira hautesle-zentsuaren kopiak. Erreklamazioak egiteko ilbeltzaren 31 arteko epea dago.

### Pertsonaia



Unai ARZALLUS GIL

#### *Bapatean hil da Unai Arzallus Aurrerako futbolari eta dantzaria*

Unai Arzallus Gil, 22 urteko leitzarra bapatean sortutako eritasun baten ondorioz hil zen urtarrilaren 12an. Unai Aurrera futbol taldeko jokalaria zen. Infantil mailan hasita haundien taldera arte aritu zen Leitzako taldean. Dantza taldean ere aritzen zen, beraz hutsune nabarmena eta atsekabea sortu du bere heriotzak herriko kirol eta kultur munduan. Urtarrilaren 16an, Aurrerak Etxabakoitz taldearen aurka jokatu zuen liga partidua baino lehen omenaldia eskaini zitzaion Arzallusi eta minutuko ixilune hunkigarria gorde zen. Leitzarrek garaipena eskaini zioten taldekidea izandakoari.

### flash

- **Traktoreen ITVa ostiral honetan pasatuko da**
  Ilbeltzaren 28an, ostirala, goizeko 9etatik 3ak arte, traktoreen azterketa teknikoa, «ITV» delakoa egitera etorriko dira. Ez da oraindik erabaki zein lekutan jarriko diren.
- **Nortasun Agiria berritzea**
  Nortasun Agiri Nazionala berritzeko bulegokoak otsailaren 3an, osteguna, etorriko dira hurrena.

### Leitzako Zinema

Ostiraletan 10,30etan
Larunbatetan 7,30etan

2000-01-28/29
*Estacion central de Brasil*

2000-02-04/05
*El club de la lucha*

2000-02-11/12
*La lengua de las mariposas*

**GAZTELU ITURGINTZA**
KALEFAKZIOA
Elgoien 32
Tfnoa: 948 510 086 • LEITZA

## ☞ BAZTAN

# Iaz ere, gastuak baino diru-sarrera gehiago izan ditu Elizondok

Santio bestetan zazpi milioitik goiti gastatu ziren

TTIPI-TTAPA

Elizondoko herriak 2.898.799 pezetako irabaziekin akitu zuen 1999. urtea, Errege bezperako batzarrean jakinarazi zenez.

Herriaren diru-sarrerak 12.901.727 pezetakoak izan ziren eta gastuak, berriz, 10.002.928 pezetakoak. Lehendik 1.266.099 pezetako saldoa bazela kontuan hartuz, gaur egun 4.266.913 pezeta daude herriaren kutxetan. Kobratzeko sistema berriaren bitartez lau milioi pezeta baino gehiago (4.103.000 pezeta) bildu ziren iaz.

Anastasio Nagore alkatea eta bere kargodunak gustora ageri ziren eta herritarrek emandako erantzun ona eskertu zuten. Elizondon lehen aldiz bankutik pasatu dute urteko erreziboa eta, gisa horretara, etxez etxe eskean joateko ohitura zaharkitua bazterrean utzi da. 2000. urteko erreziboa martxoan pasatuko omen dute.

Horretaz gain, Santio bestetan (4.266.913 pta) eta udazkeneko ferietan (2.666.800 pta) lortu ziren diru-sarrerarik haundienak. Gastuei dagokienez ere, herriko bestetan izan ziren diru-irteera haundienak, guzira 7.306.876 pezeta. Kultur ekitaldiak antolatzen 1.393.028 pezeta gastatu ziren.

Kanposainduaren kudeaketak 1.816.170 diru-sarrerak sortu zituen eta 1.823.985 pezetako gastuak. Batzarrean erabaki zenez, kanposainduaren mantenimendu lanak Bautista Irisarrik eginen ditu 2002. urteko Errege bezpera bitarte, 450.000 pezetaren truke. Bertze hamar mila duro ere jasoko ditu Santiago elizako erlojuaren funtzionamenduaz arduratzeagatik.



**San Anton eguneko behia Baztango Panifikadorarentzat**

Francisco Joaquin Iriarte Zahar Etxearen alde urtero San Anton egunean egiten den zozketan 6.447 zenbakiari egokitu zitzaion behia. Baztango Panifikadorak irabazi zuen lehendabiziko saria. Juantxo Mugiro arduradunak erran zuenez, «48 urte daramazkigu talonario osoa erosten». Bigarren saria, 200 kiloko zerria, Pepe Fernandez elizondarrarentzat izan zen. Bera zen 6.717 zenbakiaren jabea. Hirugarren saria (bi bildots) 2.237 zenbakiari eta laugarrena (magra bat) 14.481 zenbakiari egokitu zitzaion. Hau idazterakoan ez da saridunik agertu, baina txartel bat udaltzainak plazan eta bertzea Galarregi supermerkatuan salduak omen dira. Bittor Elizagoien eta Manolo Arozenak eskainitako bertso saioa aditu eta Balleko Etxeak emandako hameketakoa dastatzeko modua izan zen Elizondoko Plazan.

Argazkia: Ondikol

### Laurentx inguruko bihurgunea moldatzea eskatu du Udalak

Arizkungo Laurentx inguruan (N-121-B errepideko 61. kilometroan) gertatzen diren istripuak berriro ez gertatzeko beharrezko neurriak har ditzala eskatu dio Balleko Udalak Nafarroako Gobernuari. Laurentx-eko bihurgunea, Arizkungo bidegurutzetik ehun metrora, N-121-B errepidearen leku arriskutsuenetako bat da, negu partean batez ere eta hilabete batez sei istripu izan dira. Horietako batean Jose eta Asier Urrutia aita-semeak hil ziren abenduaren 7an.

## ▼ flash

**❖ Euskararen lege berriaren alde**

Oinarriak taldeak hasitako Euskararen Lege berri baten aldeko Ekimen Herritarraren barnean, heldu diren lau larunbatetan mahai bat paratuko da Elizondoko plazan (edo euria egiten badu gorape batean) informazioa eman eta sinadura bilketa egiteko. Mahai eguerditan paratuko da, 12etatik 2 orduak artio.

**❖ Baztango Udala Udalbiltzan**

Gan den ortziralean, ilbeltzaren 21ean egindako batzarrean Baztango Udala Udalbiltzan sartzeko proposamena aztertu behar zen. EA eta EHk gehiengoa dutenez, pentsatzekoa da gaurgero Udalbiltzako kide izanen dela Balleko Udala.

**❖ Herrietako bestetarako**

Udalak ematen duen dirulaguntza %50ean igaitea eskatu du Oronozko alkateak. 1990. urtetik ez da igoerarik izan eta Balleari lauzpabortz milioi gehiago bertzerik ez omen litzaioke kostako urteko aurrekontuan. Patxi Oiartzabal Baztango alkateak, gai hau hurrengo aurrekontuetan aztertuko dela erantzun zuen.

Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013
ELIZONDO

OSTATU - JATETXEA
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa
Iturriotz Auzoa • ✆ 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

ARROPA DENDA
FAROKE
Gazteendako era guzietako arropa
Lanerako arropa

## ☞ BAZTAN

# Baztan Ikastolak ekitaldi aunitz egin ditu Eguberrietako oporretan

### Eguberriko Krosa eta Olentzeroa izan dira aipagarrienak

TTIPI-TTAPA

Baztan ikastolak Eguberri egunetan izandako oporraldia aprobetxatuz hainbat ekitaldi antolatu ditu. Abenduaren haseran postal lehiaketa egin zuen eta abenduaren 19an Eguberriko Krosa, honako emaitza hauekin: 1986-87 urteetan sortuak, nesketan, Garbiñe Goñi irabazle, Jaione Arnal eta Olatz Aldakoren aitzinetik. 1988-89an sortuak, nesketan Estitxu Arraztoa bizkorrena, Iratxe Otero eta Maria Vicenteren aitzinetik. Mutikoetan Iñigo Moreno, Mikel Iantzi eta Santi Iantziren aitzinetik. 1990-91n sortuak, nesketan, Oihane Lameirinhas irabazle, Loinaz Jaurena eta Naiara Oteizaren aitzinetik. Mutikoetan, Ioritz Mitxeltorena, Mikel Unanua eta Adur Otxandorena gibelean utzita. 1992-93an sortuak, nesketan, Amets Albertos irabazle, Naroa Telletxea eta Haizea Otermin gibelean utzita. Mutikoetan, Gorka Aldako irabazle, Xuban Eugi eta Beñat Garmendiaren aitzinetik.



Euriari kontra egiteko laster egin zuten neska-mutikoek Baztan ikastolak antolatutako krosean.

Lau eta bortz urteko neska-mutiko tailak ere aritu ziren lasterka. Nesketan Nagore Irigoien izan zen irabazle, Intza Gartxitorena eta Jone Kaminoren aitzinetik. Mutikoetan, Oinatz Jaunsaras, Xabier Mendikoa eta Anton Peña izan ziren azkarrenak.

Abenduaren 20an, seigarren mailakoak Psikogeriatrikoan izan ziren, beraien kantu, musika eta dantzak eskaintzen. Abenduaren 22an, Olentzeroak Elizondoko karrikak alaituz eraman zituzten Udaletxera eta Osasun Zentrora. Bidenabarkoan, ostatu eta bankuetan ikasleek beren eskulanak utzi zituzten. Akitzeko, Eguberri bezperan Guraso Elkarteak Olentzerori harrera prestatu zion eta karriketan barna txistulari, trikitilari, akordeolari eta dantzariekin batera herrian itzlitxo bat eman zuten.

## ▼ flash

**❖ Piriniotako autobidea**

Iruñetik Iparraldera joanen den Piriniotako Autobideari buruz ez du Nafarroako Gobernutik inolako dokumentaziorik eta jakinarazpenik jaso Baztan Balleko Udalak. Horixe salatu ondotik bere arrenkura azaldu zuen udal batzarrak, batez ere kontutan hartzen bada mahai gainean dagoen aukeretako bat Baztanen barna pasatzen dela. Udalera ailegatu den informazio bakarra Michel Intxauspe Frantziako Diputatuak emana izatea *«bitzitzat»* jo du Udalak.

**Beiraren birziklapen egokirako 52 ontzi behar direla adierazi du Udalak**

Baztan arras herri zabala dela eta bizilagunak auzo auniztan sakabanatuak daudela kontuan hartuz, beira edo kristalaren birziklapen egokirako gutienez 52 ontzi eskatu ditu Balleko Udalak. Horietatik hamar Elizondon paratu beharko lirateke (Galarza, Plaza, Giltxaurdi, Antxitonea, Amaiur, Labaien, Gloria, E. Sozialak, Saioa eta Seat), hiru Lekarozen (herria, Oharriz eta Huarte-Arrazkazan), lau Gartzainen (herria, Aizano, Ariztegi eta Etxarri), hiru Iruritan (Plaza, Apote eta fabrika), bi Arraiozen (Mardea eta Errebote plaza), hiru Oronozen (Sagualde, Mugairi eta Zozaia), bi Zigan (Plaza eta Zuraurre), bat Anizen, bina Berroeta eta Almandozen, hiru Amaiurren eta bortz Azpilkuetan (herria, Apaioa, Urrasun, Zuaztoi eta Arribiltoa).

ZUBIRIA
MINDEGIAK
• Etxeak apaintzeko landareak
• Baso landareak
• Bertako frutondoak
ARRAIOZ • NARBARTE
Tfnoak: 948 452032 (bulegoan) • 948 592034 (etxean)
Faxa: 948 581274

ORDOKI LIKOREAK
ERRETEGIA
Tel.: 948453410
Fax: 948453378
ARIZKUN
Parrilan egindako haragi eta arrainak


Carlos Garaikoetxea Etxenike
abokatua
aseguru orokorrak
✆ 948 581468
948 580433 (etxekoa)
Frantziarako etorb. 3
Ameztialde 3B•ELBETE

## ☞ SARA

# Hernaniko sagarnotegi baterat ateraldia prestatu du AEK Gau Eskolak

Otsailaren 4an ganen dira Hernaniko Larre-Gainerat

ANA MARI, MARTINE ETA FRED



Sarako Gau Eskolak AEK Eguna antolatu zuen iaz. Artxibokoa

Urte guziz bezala, Sarako Gau Eskolak animazio batzuk proposatu ditu aurten ere. Hala nola, urtea goxoan hasteko, ateraldi bat Hernaniko Larre-gain sagarnotegirat antolatua da datorren otsailaren 4eko. Bidaia autobusez eginen da eta nahi duten guzieri idekia da. Autobusaren gastuen ordaintzeko 50 libera inguruko partizipazioa galdetuko da. Giro ezin hobea segurtatua da, Gau Eskolako klase bakotxak animazioren bat prestatuko baitu. Hitz ordua arratseko 7etan da, Herriko Etxeko Edantegian. Izenen emateko deitu Sarako Gau Eskolara (05 59 47 53 46) edo Maixan eta Beronikaren ostatura (0559542519) otsailaren 1a aitzin.

### Maitetxoak

Maitetxoak Senpereko haurtzaindegia da eta 1990. urtean sortu zen. Elkarte honek hiru hilabete eta sei urte arteko haurrei ateak idekitzen dizkie urte osoan (Eguberri astean ezik), astelehenetik ortziralera, goizeko 7ak eta erdietatik arratsaldeko 6ak eta erdiak arte. Haur gehienak Senpere, Zuraide eta Saratik etortzen dire. Sarako haurren kopurua %10-15ekoa da.

Elkartearen diru iturriak burasoek ordaintzen dutena gehi Familiei Laguntzeko Erakundea (CAF), Kontseilu Orokorra eta Herriko Etxeen laguntzak dira.

Joan den urtean Maitetxoak elkartea sos eskasian gelditu zen eta Herriko Etxeeri laguntza gehiago galdetu zien. Hala nola, Sarako Herriko Etxeak 20.000 Libera emaitea erabaki du.

Bertzalde, elkarteko arduradun den Bigougan andereak lokal arazoak ere dituztela azpimarratzen du. Lokalaren neurrien arabera kalkulatzen baita haurren kopurua, eta batzuetan ezin dituzte haur guziak onartu. Legez 24 haur hartzen ahal dira. Elkartearen proiektua Zaldubi ikastolarekin batera lokal berria eraikitzea da.

### Mus berri

Otsailaren 11n Herriko Etxeko edantegiko mus txapelketa hasiko da. Otsailaren 5a arte izena ematen ahal da ostatura joanez edo 0559542519 telefonora deituz. Pertsona bakoitzak 60 libera pagatu behar du. Frantziako mus txapelketaren kanporaketak hilabete honen 28an bururatuko dire. Ondoko astean ez da txapelketarik izanen ostatuan. Aldiz, Omordia gelan Sarako Izarra errugbi elkarteak bere mus lehiaketa antolatuko du.

### Herriko Kontseiluak dirulaguntzak banatu ditu

Abenduaren 3ko Herriko Kontseiluan, diru laguntza batzuen berri emana izan da. Elkartasun gisa, 5000 liberako laguntza berezi bat bozkatua izan da uholdeek kaltetu Aude departamenduarentzat. Bertzalde, «Eugénie inperadorearen bidea» elkarteak ere, 5000 libera izanen du bere proiektuaren aitzinarazteko. Horretaz gain, Sarako Izarra errugbi taldeak 5000 liberako ez ohiko laguntza bat ihardetsi du, bide gastuen estaltzeko. Azkenik, 4000 Libera bozkatuak izan dira, gaineko eskolako haurrek elurretarat joateko parada izan dezaten.

### Bigarren saileko partiduak hasi ditu errugbi taldeak

Abenduaren 12tik goiti, Sarako errugbilariek bigarren saileko partiduak hasi dituzte. Beren multzoan Euskal Herriko 5 talde dira (Arrangoitze, Bardoze, Kanbo, Sara, Uztaritze) eta Biarnoko bat (Puyoo). Urtarrilaren 15ean joaneko partiduen azkena jokatu da, eta gure basurdeak gaitzeko trenpuan ditugu, Kanboko zelaian irabazi ondoren lehen postuan kokatu baitira, ondotik Puyoo, Bardoze eta Kanbo dituztelarik.

Oraino partida ainitz falta dira eta martxoaren 26an jakinen dugu xuxen nor sailkatuko den final erdietarako.

Sarako bigarren taldeak lehen taldearen ibilbide ber-bera segitu du, partidu bat baino ez baitu galdu eta gainerako guziak irabazi.

**Lehen taldearen azken emaitzak:**

Sarak 26, Uztaritzek 5.
Sarak 26, Arrangoitzek 24.
Kanbok 8, Sarak 23.

Ondoko partida, urtarrilaren 30ean: Sara-Bardoze.

FUNERARIA ZERBITZUAK
Lesaka-Doneztebe
MALDAERREKA, S.L.
24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 948637404 • LESAKA
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE



☞ **SENPERE**

# Martxotik goiti aldaketak ezagutuko ditu herriko erdialdeak

## Hiru tokitan lanak egin gogo dituzte, posta, karrika eta kirol zelaian

**Franck DOLOSOR**

Postako plaza berrituko da segurtasuna handitzeko gisan. Autobusek geldi-tokiak izanen dituzte ikasleak garraiatzeko. Ibilgailuen abiadura apaltzeko xedearekin biderrian harriak emanen dituzte Miliun bat eta 800.000 libera (45 miliun pezeta) gostako dute lanek. Bertzalde, kirolzaleek 380 tokiko jarleku estaliak izanen dituzte zelaiaren aintzinean, partidak ikusteko. Kirolarientzat aldagela berriak eraikitzea deliberatu du Herriko Etxeak. 3 miliun eta 700.000 libera (92 miliun pezeta terdi) gostako dute lanek.

Azkenik, karrikan oinezkoen bideak zabalduko dituzte, eta karrika hertsituz uste da polikiago pastuko dela jendea autoz. Elizako plazaren eta Herriko Etxearen aintzinean autoak oren batez uzteko lekuak prestatuko dituzte. 3 miliun liberako gastua izanen da (75 miliun pezeta). Gogoan izan ere, karrika aldean lanak hasiko direla gasa etxeetarat banatzeko.



**% 10ez handitzen da urte guziz gela elebidun publikoen sarea Iparraldean. Argazkian, Senpereko eskola publikoko gelakoak.** Studio de la Nivelle

### Ikas Bi elkarteak diru arazoak baditu aurten ere

Europa, Akitania eta Pauek ez diote laguntzarik eman Iparraldeko ikasgela elebidun publikoak kudeatzen dituen elkarteari. Halere, proiektu berriak baditu Ikas Bik: pentsatzen da Euskal Herri osoko gela elebidun publikoen federazioa sortzea, Gipuzkoa baikara, Bizkaiko Bige eta Arabako Herri Eskolak pareko taldeekin. Nafarrekin berantago eginen da. Federazio honek 2.200 ikasle eta 70 erakasle biltzen ditu. %10ez handitzen da urte guziz gela elebidun publikoen sarea Iparraldean. Herrian ere gero eta haur gehiago ari da sail elebidun publikoan.

### Gazte leiho! kontzertua larunbatean

Gazte leiho! kontzertua larunbat honetan, urtarrilak 29, arratsaldeko 5etatik goiti egitekoa da herriko kirol zelaian. Gazte leiho maketa lehiaketaren hamar gazte talde irabazleak (Geroh, Txitxab, Segabathor, Sei Urte, Ozke, Mugatik, Aixa, Harlax, Otsoak, Kolpek-k) entzuten ahalko ditugu Gure Irratiak, Oxtikenekoak eta Sanokik antolatutako kontzertuan. Irrintzina taldearekin dantzaldia izanen da ondotik.

Kutxa Kutxa Kutxa
txa Kutxa Kutxa Kutx
Kutxa
*Kidetza berri bat!*
7, Portuko Karrika-64700 Hendaia
Tel. 0559203274Fax 0559203237

RESTAURANT
MIGUEL
Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran
MIGUEL JATETXEA
Ibardingo Lepoa
✆ 948 631209

## ▼ flash

❖ **Euskarians** errugbi euskal selekzioak irabazi zuen Portugalen kontra 33-29 duela bi aste. Baionan jokatu zen partidan, aski untsa aritu zen BO ekipako David Gaillet senpertarra.

❖ **Sanoki batasunak** bere egoitza utzi du, azken sei urte hauetan baliatu den etxea ez da gehiago alokatuko bainan taldea ez da desegiten. Aktibitateak proposatzea pentsatzen dute gazteek. Azken kontzertu gaualdia urtarrilaren 15ean ospatu zen.

❖ **Jostablai lehiaketa** Aurten ere iraganen da Jostablai, Baionako Gure Irratia eta AEKren arteko irrati-lehiaketa. Lapurdiko 12 euskaltegiek parte hartuko dute hirugarren denboraldi huntan. Ekipa onenak trofeoak eta afariak irabazten ahalko ditu. Jostablai euskara ikasten ari direnen lehiaketa otsailaren 24tik goiti eskainiko du Gure Irratiak, arratsaldeko 8etan.

❖ **YPLON lantegiko** 59 enplegatu ohiak lan bila ibilki dira beti ere. Hamahiruk lan berri bat atxeman dute. Batzuek formazioak segitzen dituzte lanpostuak izateko gero. Plan sozialan negoziatu zen bersailkatze egitura ere bada eta lan bila ari da jendea hor. Zailtasun ainitz bada, halere, eta gehienek bertze gisa batez atxematen dute lana.

## ☞ ZUGARRAMURDI

# Bere azken emanaldia eskaini du Klimiliklik txotxongilo taldeak

### 1995ean egin zuten «Sorgina» antzeslanaren lehen emanaldia

MARGARI ETA KORO

Lau urte pasa martxan egon ondotik gan den abenduaren 21ean bere azkeneko emanaldia eskaini zuen Kilimiliklik taldeak «Sorgina» antzeslanarekin.

Nafarroan zegoen Txotxongilo antzerki egonkor bakarra izan den hau 1995ko uztailaren 31n Estefa, Mikel, Iñigo eta Joxek martxan jarri zuten. Orduz geroztik, hainbat emanaldi eskainiak zituzten. Gaur egun lau lagun hauen faltan eta Antzerki-tokia mantentzeko arazoak direnez, Antzerkia ixteko erabakia hartu behar izan da.

Halako gauza ederrak egiterakoan lana eta, batez ere, ilusio haundia behar izaten da, eta hori dena bazeukan Antzerki hunek. Bainan beti gertatzen den bezala diruak gauzak moldatzen ahal ditu edo hondatzen ahal ditu. Eta kasu huntan hondatu ditu.

Orain Kilimiliklik taldeari milesker aunitz ematea baizik ez dugu egiten ahal: lau urte ter-di hauetan sekulako lan eder eta ikusgarria eskaintzeko kapaz izan direlakoz, herriari bixitasun haundia emanez.



**Kolunpio berriak estreinatu dira**
Duela bortz bat urte elizako teilatua moldatzeko kolunpioak kendu ziren, baina gan den urtarrilaren 15ean, zorionez, Udaletxea eta Akelarre elkarteen artean erosirik, berri eta pullit batzuk jarri dituzte Azketa aldean.

### Xorroxin Irratiaren laguntza kanpaina

Herri guzietan bezalaxe, Zugarramurdi eta Urdazubin ere Xorroxin Irratirako laguntza biltzen ari da. Ostatuetan 1.000 edo 5.000 pezetako txartelak hartzen ahal dituzue. Kontuan hartu behar da laguntza honen zati bat Urdazubi eta Zugarramurdin irratia hobe aditzeko antena bat paratzeko erabiliko dela. Beraz, denen mesederako izanen da dirulaguntza.

### Sukaldaritza ikastaroa

Berako Zalain jatetxeko Iñaki Pikabeak sukaldaritza ikastaroa emanen du Arleun elkartean. Astean behin izanen da, otsaila, martxoa eta apirilean. Izena eman nahi izatekotan Marixan ostatura edo Fani Bergararengana joan. Sukaldaritzaz ideia haundirik ez dutenendako zuzendua dago ikastaroa.

## ☞ URDAZUBI

### Baztango aziendak Urdazubira sartzen direla eta arrenkura agertu du Udalak

Baztan aldetik Urdazubiko herri lurretara bazkatzera sartzen diren betizu eta zaldikoek kalte aunitz sortu dituzte azken aldian herriko baratze eta belagietan. Hau dela eta, nekazari eta herritar aunitzek beraien arrenkura azaldu dute. Andres Diharasarri Urdazubiko alkateak honen berri eman zien Mikel Altzuart eta Remigio Lizasoian Baztango zinegotziei bilera batean. Alkatearen ustez, Otsondoko bide-bazterretan paratutako zerrakurek ez diete Urdazubikoa bertze biderik uzten aziendei. Aferaren larritasuna ikusiz, Baztan eta Urdazubiko mugan, Xardin Zubiaren eskuinaldean eta Otsondoko bidean aziendak ez pasatzeko parrilla eta ataka bat jartzea eskatu zaio Baztango Udalari. Eskatutakoa egiteko dirulaguntza eskatu dio Baztango Udalak Nafarroako Gobernuari.

ARMUA Jatetxea
Zugarramurdiko karretera 3. Km
✆ 948 599 131 - URDAZUBI

La Asturiana
ostatu• jatetxea
Tfnoa: 948 58 04 63
Santiago 51, ELIZONDO

OBRA PROIEKTUAK
✔ Etxe berriak eraikitzeko
✔ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
✔ Urbanizazio proiektuak
✔ Obra-zuzendaritza
Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan
BIDASOA arkitektura bulegoa
Bittiria, 45 • ✆ 948 637 503 • LESAKA

Baztanen...
ESTHER
LOREDENDA • GARDEN CENTER
ESTHER FUNERARIA
Hilkutxak • Hilautoak • Eskelak • Dokumentazioak Beztitzeak, etab...
24 orduko zerbitzua
Eta Iruñean...
IRACHE TANATORIOA
Iratxe Monastegia, 60
Tfnoa: 26 09 54
Aritzondo, Bergara auzoa • Tfnoa: 948580971 • ARIZKUN
Errepide Nagusia • Tfnoa: 948592200 • NARBARTE
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 948580668 • ELIZONDO

## EZKONTZAK

**Jose Francisco Rekarte Juanikorena** eta **Maria Jose Eskudero Mitxelena**, Doneztebekoak, urtarrilaren 5ean.
**Juan Mari Aranburu Susaño** eta **Elsa Sebastian Lopez**, Berakoak, urtarrilaren 15ean.
**Pedro Mari Etxandi Juanikotena** eta **Emma Sanzberro Martikorena**, Arraiozkoa eta Etxalarkoa, azaroaren 13an.
**Cristophe Mariluz** eta **Laure Dulau**, Sara eta Baionakoa, urtarrilaren 15ean.
**Juan Mari Agirre Iturria** eta **Begoña Sagaseta Andiarena**, Etxalar eta Donamariakoa, azaroaren 27an.
**Jose Agustin Iturralde Migeltorena** eta **Karmentxu Ostiz Apeztegia**, Donamaria eta Doneztebekoa, urtarrilaren 8an.
**Jean Bertrand Ibar** eta **Isabelle Cuburu**, Senperekoak, urtarrilaren 6an.

## JAIOTZAK

**Jon Mikel Irazoki Eraso**, Berakoa, abenduaren 19an.
**Jon Iparragirre Iparragirre**, Berakoa, abenduaren 28an.
**Joana Ourdanabia**, Senperekoa, urtarrilaren 1ean.
**Kevin Roy**, Senperekoa, urtarrilaren 1ean.
**Lorea Sincalbre**, Senperekoa, urtarrilaren 4ean.

## HERIOTZAK

**Guillermo Martinez Larrea**, Elizondon, urtarrilaren 5ean, 62 urte.
**Bonifacio Ibarra Arratxea**, Zigakoa, urtarrilaren 5ean, 89 urte.
**Mª Purificacion Bermejo Morales**, Elizondon, urtarrilaren 8an, 81 urte.
**Alberto Dámaso Belzunegi Meaka**, Elizondon, urtarrilaren 11n, 87 urte.
**Unai Arzallus Gil**, Leitzakoa, urtarrilaren 12an, 22 urte.
**Maria Juana Etxeberria Altzugarai**, Berakoa, abenduaren 30ean, 86 urte.
**Fermina Bera Mikelarena**, Iturengoa, urtarrilaren 7an, 89 urte.
**Jacqueline Duhard**, Sarakoa, urtarrilaren 10ean, 71 urte.
**Francisco Gonzalez Ezpeleta**, Arantzakoa, urtarrilaren 8an, 81 urte.
**Miguel Mari Amigorena Goñi**, Donamariakoa, azaroaren 24an, 56 urte.
**Celestino Sagardia Erneta**, Gaztelukoa, abenduaren 24an, 71 urte.
**Francisco Iribarren Iribarren**, Urrozkoa, azaroaren 12an, 74 urte.
**Asuncion Iribarren Armasa**, Urrozkoa, abenduaren 17an, 89 urte.
**Agustina Lopez Meson**, Lesakan, abenduaren 1ean, 75 urte.
**Nieves Arrupe Telletxea**, Lesakakoa, abenduaren 12an, 89 urte.




• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
*10 minututan zuk nahi duzun kolorea*
*Profesionalentzat prezio berezia*

Eztegara 19 • ✆ 948 63 02 40 • BERA




**H. Lopez**
**iturgintza**

- Kalefakzioa
- Gas Instalazioak
- Iturgintza industriala
- Ureztatze sistemak

Tel.: 948 45 21 26
Mug.: 617 34 99 44
NARBARTE



**Bernardo MAIA SANZBERRO**

San Franciscon (EEBB) hil da 2000.eko urtarrilaren 16an. Etxalarren sortu zen duela 73 urte.

Bere senideak Juanito eta Juanita, Jovita eta Juan. Bere ilobak Joxe Mª eta Kontxi, Luis Mª eta Arantxa, Axun eta Xabier, Josetxo eta Marian.

Besarkadarik beroena bere emazte Esperanza eta seme-alaba Ben, Mª Jose eta Iñakiri.

Etxalarren, 2000.eko urtarrilak 18

DATUAK..........

❶ *Josu Baleztena Eratsungo aurrelariak hamazazpi urte bete zituen abenduaren 13an, Santa Luzia egunean. Irtea etxekoa da.*

❷ *Txaruta pilota taldearekin entrenatu eta aritzen bada ere, aurrekontratua sinatu berri du ASPE enpresarekin.*

❸ *Lekaroz-Elizondo B.H. Institutuan ikasten du, Formazio Zikloan, erdi mailako graduan. «Pilotari profesional egiten naizenean ere, zerbait gehiago ikasteko asmoa dut».*

❹ *Eratsunera txapel gehiago ekartzeko asmoa ez du bazterrean uzten: «Ilusioa beti izan behar da».*

TESTUA:
**AITOR AROZENA**

☞ **Josu BALEZTENA** *Eratsungo pilotaria*

# "Zaila da baina beti txapelak irabazteko ilusioa izan behar da"

Pilotari joka zazpi urtetan hasi zen Josu Baleztena eta partidutan *«txuriz eta horrela, hamar urterekin»*. Txaruta taldearekin ari da lanean eta adituen erranetan etorkizun handiko pilotaria da. Honelako zerbait ikusi izanen du ASPE enpresak, hamazazpi urte bete berriak dituela beraiekin lotu eta profesionaletan aritzeko aurrekontratua eskaini baitiote eratsundarrari. *«Gogo haundia dudala ikusi izanen dute, gehienbat. Momentuz, bi urte baino lehenago debutatu behar dut profesionaletan eta gero, bi urteko kontratua izanen dut ASPErekin».*

Berak aurrelari-aurrelaria dela uste du. *«Ttikitan atzean aritzen nintzen bai, baina gero aurreko xaltxa horietan sartzea gustatzen zitzaidala ikusi nuen».*

Oraindik gaztea bada ere, dagoeneko hameka txapel irabaziak ditu Nafarroan: *«Bakarka garrantzitsuena Zizurrekoa izanen da. Baina Nafarroatik kanpo ez dugu gehiegi jokatu eta Gipuzkoako txapelketa horiek, Elgetakoak eta, dira egitan garrantzitsuak. Gainera, garai txarrekoa naiz, abendukoa eta adin txikietan ni baino zaharragoak direnekin jokatzea tokatu zait beti. Hor indar gutxiago nuela nabari zen».*



**«Aurreko xaltxa horietan sartzea gustatzen zait»**

### «ESKUAK BERATZAK DITUT ETA HORIEK GOGORTU EGIN BEHAR DITUT»

Gaur egungo aurrelarien artean Titin III eta Aimar Olaizola dira gehien gustatzen zaizkionak. Atzelarien artean, berriz, Elkoro du gogoko.

Bere ezaugarriei dagokienez ere, Olaizola gaztearen itxura omen du Baleztenak: *«Igualtsoa naizela esaten dute. Asko sartzen naiz gantxoarekin eta ezkerrarekin eta eskuinarekin ere dexente ongi moldatzen naiz»*. Halere, oraindik asko hobetu beharra duela ere badaki: *«Beti hobetu beharra dago, joa batez ere. Indarra hartu behar dut eta eskuak ere motelak dauzkit, beratsak... abudo galtzen zaizkit. Horiek gogortu beharra dago».*

Bere atzelarian segurtasuna da gehien estimatzen duena. *«Jo haundia izatea ez zait gustatzen, baina bai pilota ez galtzea. Eutsi eta eutsi eta nik errematatu eta tantoa egin»*. Aurkako aurrelarian, aldiz, ez dio ezerk aparteko beldurrik ematen: *«Hori igual da, nik emanen dizkiot lanak».*

Profesionaletarako saltoa ematen duenerako, *«ongi jokatzea eta suertea izatea»* bertze helbururik ez du.

*"Olaizola gaztearen berdintsua naizela uste dut. Asko sartzen naiz gantxoarekin eta bi eskuekin dexente ongi moldatzen naiz. Halere, joa dexente hobetu beharra dut"*

# Doneztebeko Jose Javier Etxeberria XXI. mendeko lehen txapelduna

■ Zeberio II.arekin batera finala irabazi zien Iribarren eta Lizasori

■ Urte berean banaka eta binakako txapelak irabazi ditu Kotetok

XXI. mendeko erremonte txapelketa Donezteben geldituko zela kontu jakina zen, urtarrilaren 8ko finaleko lau pilotarietatik hiru doneztebarrak baitziren. Patxi Iribarren eta Iñaki Lizasok bikotea egiten zuten eta Jose Javier Etxeberriak, Elduaiengo Patxi Zeberio zuen aitzin koadroetan.

Azkenean, Zeberio II eta Etxeberria IIIak eskuratu zuten txapela, 40 eta 30 irabazi ondotik. Honela, 2000. urtean erremontean jokatutako lehen txapela lortu zuten Huarteko Euskal Jai Berrira faborito gisara agertu zirenek.



**Jose Jabier Etxeberria, Etxeberria III.**

Finalaren lehen zatia parekatua izan zen. Alde txikiak izan baziren ere, gehienetan Iribarren eta Lizasoren aldekoak ziren, Doneztebeko bikoteak ongi jokatu baitzuen finalaren lehen erdian. Hamabosgarren kartoian lortu zuten berdinketa irabazleek Jose Jabier Etxeberriaren lehen sakeari esker. Hogeitabana eta hogeitabina berdindu ondotik, 22 eta 25 aitzinetik jarri ziren Iribarren eta Lizaso. Orduan etorri zen Patxi Zeberio eta Jose Jabier Etxeberriaren susperraldia. Hamar tantu segidan lortu zituzten eta 32-25 aitzinetik jarri. Normalean sakearen min handiegirik egiten ez badu ere, finalean zazpi tantu lortu zituen Etxeberria IIIk sakearekin. 22-25etik 32-25era lortu zituzten hamar tantoetatik hiru sakearekin lortu zituen atzelariak eta hortxe akautu zen finala.

Iribarren eta Lizasok ez zuten asmatu hortik aitzinera. Beti Zeberio IIaren kolpearen menpe izan ziren eta tantoa egiteko aukeraren bat zutenean Jose Jabier Etxeberriak bikain erantzun zuen defentsan. Zeberio IIak eta Etxeberria IIIak ez zuten arazorik izan finalaren azken txanpan eta merezita irabazi zuten txapela.

❖ **Saralegi marka berriaren bila**
328 kiloko harria altxatzen saiatuko da Mikel Saralegi otsailaren 5ean Donostian, Nazioarteko Sei Orduen barnean.

❖ **Unai Arzallus Gil**
Leitzako Aurrera futbol taldean ari zen 22 urteko atzelaria bapatean hil zen urtarrilaren 12an. Infantil mailan hasi zen Unai Aurreran jokatzen. Ustekabeko heriotzak samina eta atsekabea sortu Leitzako kirol eta kultur munduan.

❖ **Eskuz binakako txapelketa**
Lehendabiziko partiduak jokatuak dira. Mikel Goñi eta Zezeagak 22-15 irabazi zieten Aimar Olaizola eta Auxkini Mungian urtarrilaren 18an. Nagore eta Inaxio Errandoneak, berriz, 18-22 galdu zuten Unanue eta Errastiren kontra.

# Baztango pilota txapelketaren finalak jokatu ziren

## Iruritako Aranabia pilotalekuan Errege egunean

Iruritako pilotalekuan jokatu ziren Errege egunean kadete, gazte eta afizionatu mailako Baztango pilota txapelketaren finalak.

Kadetetan Bengoetxea eta Astizek 18 eta 15 irabazi zieten Arrastoa eta Arrastoari.

Gazteetan beratarren arteko finala jokatu zen eta Irazoki eta Retegik jantzi zuten txapela, Zubieta eta Altzugureni 22 eta 16 irabazi ondotik. Neurketa hagitz parekatua joan zen hasierako hamabi tantuetan, baina hortik aitzinera irabazle izandakoak izan ziren nagusi.

Afizionatuetan, Lopez de Sabandok eta Bastidak ustekabean menperatu zituzten Elizegi eta Goñi, 22 eta 11. Azken hauek ziren faborito, finala arte onenak izan baitziren, baina finalean Lopez de Sabandok eta Bastidak ikaragarrizko neurketa egin zuten, merezimendu osoz txapela jantziz.

Bezperan jokatu ziren ttikienen finalak. Aurrebenjaminetan partidu borrokatua izan zen. Azkenean Juanenea eta Madariagak 18 eta 17 irabazi zieten Irigoien eta Gonzalezi. Benjaminetan Barberena anaiek 18 eta 14 irabazi zieten Yañiz eta Irigoieni. Alebinetan, Ezkurra eta Urrutiak 18 eta 9 irabazi zieten Garmendia eta Iraolari.



**Jubenil mailan beratarren arteko finala jokatu zen.**

Argazkia: Jagoba Manterola

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## IÑAUTERIAK

**SUNBILLA**

**Urtarrilaren 28tik 30era**

**ITUREN-ZUBIETA**

**Urtarrilaren 31tik otsailaren 1era**

## MENDI IRTEERAK

**ELIZONDO**

**Urtarrilaren 30ean** Mendaurrera joanen dira Baztango Mendigoizaleak.

**Otsailaren 6an** berriz, elurretara eginen dute irteera.

## SOLASALDIA

**LESAKA**

**Urtarrilaren 29an** Euskal Demokraziari buruzko proposamenaren azalpena. Kasinon, arratsaldeko 5etan.

## ERAKUSKETAK

**BERA**

**Urtarrilaren 31tik otsailaren 27ra** Munduko bazter guzietako musika tresnak. Kultur Etxean, arratsaldeko 6etatik 8etara.

## OSPAKIZUNAK

**DONEZTEBE**

**Urtarrilaren 30ean** Ezpelura aldeko jubilatuen urteko besta. Meza eta ondoren bazkaria. Arkupeak elkarteak antolatzen du.

## ERAKUSKETA

**SENPERE**

**Artisau erakusketa** Eskualdeko 30 eskulangileren obrak ikusgai Senpereko aintziran. Asteazkeneitk igandera, arratsaldeko 3etatik 7ak arte.

# AGENDA PRAKTIKOA

## TELEBISTAKO TXOKOA



**BIDEGURUTZEAN: Fernando Sarratearekin**

*Doneztebeko gizon honek 20 urte daramazki egunero-egunero tenperatura neurtzen, eta euria egiten badu, kantitatea ere neurtzen du. Nafarroako Gobernuak Nafarroan dituen 90 kolaboratzaileetako bat da. Asteazken honetan, arratseko 9,30ak aldera kontatuko digu horren berri.*

**URTARRILAREN 27TIK 30ERA**

| | ASTEAZKENA | ORTZEGUNA | ORTZIRALA |
|---|---|---|---|
| 11:00 | **Berriak** (errep.) | **Berriak** (errep.) | **Berriak** (errep.) |
| 13:00 | **Berriak** (errep.) | **Berriak** (errep.)<br>**Bideg.** (errep.) | **Berriak** (errep.) |
| 17:00 | **Berriak** (errep.) | **Berriak** (errep.) | **Berriak** (errep.) |
| 21:00 | **Berriak** | **Berriak** | **Berriak** |
| 21:30 | **Bidegurutzean**<br>*Fernando Sarratea ezagutuz* | | **Herriz-herri**<br>*Bera, Etxalar, Arantza eta Sunbilla* |

**URTARRILAREN 31TIK OTSAILAREN 6RA**

| | ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA | ORTZEGUNA | ORTZIRALA |
|---|---|---|---|---|---|
| 11:00 | **Berriak** (errep.) | **Berriak** (errep.) | **Berriak** (errep.) | **Berriak** (errep.) | **Berriak** (errep.) |
| 13:00 | **Berriak** (errep.)<br>**Herriz-herri** (errep.) | **Berriak** (errep.)<br>**Iñauteriak** (errep.) | **Berriak** (errep.)<br>**Iñauteriak** (errep.) | **Berriak** (errep.) | **Berriak** (errep.) |
| 17:00 | **Berriak** (errep.) | **Berriak** (errep.) | **Berriak** (errep.) | **Berriak** (errep.) | **Berriak** (errep.) |
| 21:00 | **Berriak** | **Berriak** | **Berriak** | **Berriak** | **Berriak** |
| 21:30 | **Iñauteriak**<br>*Sunbilla eta Iturengo iñauteriak.* | **Iñauteriak**<br>*Zubieta eta Iturengo iñauteriak.* | **Iñauteriak** | | **Herriz-herri**<br>*Lesaka, Ituren...* |

**OTSAILAREN 7TIK 10ERA**

| | ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA |
|---|---|---|---|
| 11:00 | **Berriak** (errep.) | **Berriak** (errep.)<br>**Jokoa Solas** (errep.) | **Berriak** (errep.) |
| 13:00 | **Berriak** (errep.)<br>**Herriz herri** (errep.) | **Berriak** (errep.)<br>**Jokoa Solas** (errep.) | **Berriak** (errep.) |
| 17:00 | **Berriak** (errep.) | **Berriak** (errep.)<br>**Jokoa Solas** (errep.) | **Berriak** (errep.) |
| 21:00 | **Berriak** | **Berriak** | **Berriak** |
| 21:30 | **Jokoa solas**<br>*Eskualdeko kirol mundua* | | **Bidegurutzea**<br>*Kultura, ohiturak, artisauak...* |

**PROGRAMA BEREXIAK:**

**Iñauteriak herriz herri**

*Asteburu honetan egitekoa den Sunbillako karrozen desfilea, eta astelehen eta asteartean Zubieta eta Iturenen izanen den mozorro eta joaldunen salsa zuen etxeetara eramanen du Ttipi-ttapa telebistak.*



## BASERRIA



### ZERRIKIA

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 5.200 pta.
- **Zerri gizena** (95-100): 127 pta/kiloa.
- **Zerramak:** 70-75 pta./kiloa, bizirik.



### BEHIKIA

- **Aretze gizenak:**
- **Idixkoak:** Pta/kg. Kanal

| | |
|---|---|
| Extra | .550 |
| 1.koa | .530 |
| 2.koa | .510 |

- **Urruxak:** Pta/kg. Kanal

| | |
|---|---|
| Extra | .570 |
| 1.koa | .550 |
| 2.koa | .530 |

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.

- **Aretze ttikiak** (15 egun ingurukoak):

**Nabarrak:** urruxak 15.000 eta idixkoak 28.000 Pta.

**Mestizoak:** urruxak 32.000 eta idixkoak 42.000 Pta.

**Behi zaharrak:**

Behi nabar gizena: 350 Pta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 380 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: **EHNE-NAFARROA**

## Liburuak



**«Lesakako Historia, 1400-1830»**

BIDASOA IKERKETA ZENTROA

Bidasoa Ikerketa Zentroko koadernoen 2. alea argitaratu dute berriki. Lehendabiziko alean Berako historiaren zenbait pasarte bildu bazuten, oraingoan Lesakan egin dute ahalegina, Erregimen Zaharrak herri honetan utzi zuen arrastoa biltzeko asmoz.

Bidasoa Ikerketa Zentroan parte hartzen duten historialariek idatzi dituzte liburua osatzen duten 9 artikuluak: Juainas Paul zubietarra, Fernando Mikelarena beratarra, Andoni Esparza eta Jose Miguel Ariztegi lesakarra dira autoreak.

Udal dokumentuetan oinarritzen dute hein haundi batean euren lana, eta Lesakarekin lotura duten gaiak jorratu dituzte, hala nola, feria eta azokak, bestak, Bortzirietako blasoi edo eskudoa, herriko etxe zaharrenak... Eskualdeko liburudendatan salgai jarriko dute laster.

JAKIN BEHARREKOAK

# Euroari buruzko galdemoduak

Hona hemen euroari buruz sortzen ahal diren galdera batzuendako erantzunak:

**EUROA ETA PEZETA INDARREAN EGONEN DIREN TARTEA TTIKITU EGIN DA?**

Bai, hala da. Europako Batasuneko Finantza eta Ekonomia Ministroek berriki erabaki zuten epe hori 6 hilabetetik hilabete bat edo bitara murriztea. Beraz, 2002. urteko urtarriletik otsailaren 28a bitarte (gehienez ere) luzatuko da elkarbizitza epe hori.

**ZEIN URRATS DAUDE EUROA INDARREAN SARTZEKO?**

Dena errexagoa izan dadin eta informatzeko astia izan dezagun, hiru epe ezarri dira euroa behin betiko sartu baino lehen: Trantsizio Epea (1999ko urtarrilaren 1etik 2001eko abenduaren 31 bitarte); Trukaketa Epea (2002ko urtarrilaren 1etik otsailaren 28ra beranduenez); eta Behin-betiko Epea (otsailaren 28tik aitzinera).

**ZEIN IZANEN DIRA MONETA BAKARRAREN ABANTAILA NAGUSIAK?**

Euroak ekarriko dituen abantaila nabarmenen artean interes tipoena dago, ohikoak baino ttikiagoak izanen baitira. Bertzalde, Euroa indarrean dagoen lurraldeetatik bidaiatu eta negozioak egitea erraxagoa eta merkeagoa izanen da.

**TRANTSIZIO EPEAN SINATUTAKO KONTRATUAK EUROTAN AGERTU BEHAR DUTE?**

Ez da beharrezkoa 2002ko urtarrilaren 1a arte, baina epe luzeko kontratuak badira errosoagoa da eurotan egitea.



Espainiar Estatuko euro monetek izanen dituzten bi aldeak.

*Euroak eta pezetak 2 hilabetez elkarbiziko dira, eta ez 6 hilabetez hasieran aipatu zen bezala.*

acción euro
NAFARROAKO AURREZKI KUTXA

## DISKAK




«Gernika-zuzenean 2»

MIKEL LABOA

ELKARLANEAN

Iazko abuztuan Donostiako Victoria Eugenia antzokian egindako emanaldia biltzen da zuzeneko disko honetan. Lan honen alderdirik aipagarriena Donostiako Orfeoia eta Euskal Herriko Gazte Orkestraren kolaborazioa dira. Zehazki hiru kantutan hartu dute parte, "Gernika", "Txoria-txori" eta "Baga-Biga-Higa", eta diskari izena ematen dion trilogia osatzen dute hiru abesti hauek. Carlos Puig musikari kubatarrak moldatu ditu orkestrarako. Diskoan dauden bertze 5 kantuak bere ohiko laguntzaileekin grabatu ditu Laboak. Hoietako batzuk abesti herrikoiak dira: "Txinaurria", "Elgeta" eta "Ezpatadantza". Bertze bi, "Gure hitzak" eta "Kiromantzidxa", Bernardo Atxaga eta Joseba Sarrionaindiaren poema banatan oinarrituak daude eta Laboak musikatuak.

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## KONTZERTUAK

### ELIZONDO

**Urtarrilaren 28an** "Mingo y los eficaces". Casino ostatuan.

**Otsailaren 4an** "Balerdi Balerdi". Casino ostatuan.

### DONEZTEBE

**Urtarrilaren 29an** "Kizio" Iruñeako hardcore taldea. Arratseko 10etan.

### BERA

**Otsailaren 4an** "Xabaltx" 10,30etan Pui ostatuan.

**Otsailaren 11an** "Voogie Van" 10,30etan Pui ostatuan.

### SENPERE

**Urtarrilaren 29an** "Gazte leiho" maketa lehiaketako irabazleen kontzertua: "Geroh", "Txitxab", Segabathor", "Sei urte", "Ozke", "Mugatik", "Aixa", "Harlax", "Otsoak" eta "Kolpek-k". Gure Irratia, Sanoki eta Oxtikeneak antolaturik. Arratsaldeko 5etatik aitzinera. Gero dantzaldia izanen da Irrintzinarekin.

## GUARDIAKO BOTIKAK

112 Tfnora. deitu behar da

**Urtarrilaren 24tik 30era** Igantzi, Sunbilla, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

**Urtarrilaren 31tik otsailaren 6ra** Lesaka, Ituren, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.

**Otsailaren 7tik 13ra** Bera, Narbarte, Elizondo (Lezaun), Urdazubi, Leitza eta Goizueta.

# MERKATU TTIKIA

**Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin).**
**1.000 pezetak Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015293 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.**

**ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituak
106. Bertzelakoak

**GARAJEAK / LOKALAK**
107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

**LURRAK / ORUBEAK**
112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

**LANA**
301. Eskariak
302. Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
401. Eskaintzak
402. Akademiak

**MOTORRA**
501. Salerosketak
502. Tailerrak

**ANIMALIAK**
601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

**DENETARIK**
701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

**HARREMANAK**

**zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...** *Hegoaldetik deitzeko* *Iparraldetik 00-34-* **948631188**

**...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!**

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa**k ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

## ETXEBIZITZAK

### 101 SALDU


**ADOS**
**IRURITA.**
- Lur eremu eraikigarria salgai.
✆ 948 451 841



**GOIKO SL**
**LEITZA. Amazabal-goian pisua salgai, bere bajerarekin. Prezio ona.**
✆ 649 476 615 • 948 510 346


**ARANTZA.** Pisua salgai, sotoa, garajearekin eta 45 m²ko garajearekin. Berritua. Prezio negoziagarria. ☎ 948 634 133.

**ARANTZA.** Baserria salgai, landa etxea egiteko modukoa. ☎ 948 631 188.

**BERA.** Pisua salgai. 3 logela, bi bainu, sukalde ekipatua, egongela eta 31 m²ko ganbara. Oso ona. ☎ 609 402 443.

## ETXEBIZITZAK

### 102 EROSI


**ADOS**
- Eskaera haundia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajerak etab. erosi nahi dira.
✆ 948 451 841


## ETXEBIZITZAK

### 103 ERRENTAN EMAN

**BERA.** Pisu ederra emanen nuke errentan. Bera erdi-erdian. Mobleztatua. ☎ 948 630 387.

**ELIZONDO.** Santiago karrikan 95 m²ko pisu mobleztatua errentan emateko. Kalefakzioarekin. ☎ 948 452 199.

## ETXEBIZITZAK

### 104 ERRENTAN HARTU

Pisua erosi edo errentan hartuko nuke **LESAKA** edo **BERA**n. Txikia nahikoa da, logela bakarrekoa edo. ☎ 93 4910608.

**BERA.** Pisu bat hartuko nuke errentan. Lagun bakarrarentzat edo konpartitua. ☎ 948 634 039.

## GARAJEAK/LOKALAK

### 109 ERRENTAN EMAN

**BERA.** 70 m²ko janaridenda saldu edo alokatzen da. Lokala hutsik hartzeko modua ere bada. ☎ 948 630 394.

**LESAKA.** Bajera salgai Zarandia 8.ean. ☎ 948 210 990.

**LESAKA.** Batzoki ostatu-jatetxea errentan ematen dugu. ☎ 948 627 522 edo 610 012 224.

## LANA

### 301 ESKARIAK

**Emakume** batek lan egiteko eskaintzen du bere burua. ☎ 948 450 357 (eguerditan).

35 urteko emakume batek **sukaldaritzan** lan eginen luke. 4 urteko esperientzia. ☎ 948 637 450.

## LANA

### 302 ESKAINTZAK


**LAN ESKAINTZA**
ELIZONDOKO BULEGO BATEAN ADMINISTRARIA BEHAR DA EGUN ERDIZ ARITZEKO
• Autoa izatea beharrezkoa.
• Ordenagailua ibiltzen jakitea baloratuko da.
• Behin-behineko kontratua eskaintzen da, finkora pasatzeko aukerarekin.
ARGIBIDE GEHIAGO:
✆ 948 45 46 10
✆ 608 77 94 76


**Soldatzailea** behar dugu. 31780-Bera-2. postakutxa. ☎ 948 631 013.

Frantsesa dakiten **neska-mutilak** behar dira ostalaritzan lan egiteko. 6 hilabetez. ☎ 948 630 229.

Berako jatetxe batean **sukaldaria** behar dugu plater konbinatuak eta menuak emateko. Barran aritzeko zerbitzari bat ere bai. ☎ 610 843 316.

## MOTORRA

### 502 TAILERRAK


**MENDAUR MOTOR**
✆ 948 450333 • DONEZTEBE
**Bigarren eskuko kotxeak:**
C-15 D, Seat Marbella, R-21, Astra GSI, R-19 D.
Suzukiak aukeran
ABERIA TRIANGULOAK SALGAI



**BOAN TAILERRA**
CITROEN Banatzailea
AUTO BERRIEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
☎ 948 63 06 23 • **BERA**



**BERABI tailerrak**
✆ 948 631 445•BERA
Citroen C-25 D, Ford Mondeo TD, Nissan Vanette, Discovery 2.5 TD luxuzkoa.
ETORRI NISSAN PRIMERA BERRIA IKUSTERA


## MOTORRA

### 501 SALEROSKETAK

**Seat Ibiza** 1.5 salgai. 4 ate. NA-AF. ☎ 948 631 091.

**Citroen ZX** TD familiarra salgai. 3 urte. NA-AZ. 80.000 km. ☎ 600 386 172 (gauez).

**Renault 5** salgai, NA-L.Egoera onean. 120.000 pta. ☎ 948 630 874.

Renault **Super 5** diesela salgai. 5 atekoa. Ongi dago. ☎ 610 221 528.

**Rieju First** motoa salgai, 49koa. ☎ 948 630 052.

**Suzuki Suzi** salgai, Arrow eskapea, karburadorea eta potentzia filtroa. Egoera onean. ☎ 948 510 324.

## ANIMALIAK

### 602 SALEROSKETAK

Haragitarako behi baten **deretxoak** erosiko nituzke. ☎ 948 637 378.

**Artzain aleman** zakurra edo nahasketa nahi nuke. ☎ 948 451 624 (eguerdi eta ilunabarretan).

**Ardi ernariak** salgai. ☎ 948 635 019 (arratsetan) 639 670 231.

## DENETARIK

### 701 GALDU-AURKITUAK

Beran **giltzaria** galdu da, Alkaiaga eta Euskalduna artean. Urrutiko aginte beltza, eta egurrezko domina (Forestiere Nicolas jartzen du). ☎ 670 429 158.

Beran, Altzateko ikastolaren atarian **belarritako** bat harrapatu genuen joan den urtarrilaren 16an. ☎ 948 630 103.

## DENETARIK

### 702 SALEROSKETAK

Junker markako **berogailua** salgai. Egoera onean. 12.000 pta. ☎ 948 510 540 (gauetan).

**Kalefakziorako kaldera** eta Deville markako sukalde-kaldera salgai. Egurra zein ikatza erretzeko. ☎ 948 387 089.

Gasoilezko Tifell markako **berogailu-kaldera** salgai. Egoera hagitz onean. ☎ 948 637 149.

Musika jotzeko **bateria** salgai, gutti erabilia. ☎ 948 630 121.

**Pentium** MMX 200 ordenagailua salgai. 64 mega, 4.2 gigako disko gogorra. Monitorerik gabe 60.000 pta eta monitorearekin negoziatu beharra. ☎ 649 069 454 (Jose Manuel).

## HARREMANAK

### 801 AGURRAK

**Ezkurrako** Eskorpiari zorionak urtarrilaren 13an urteak bete dituelako. Karneta noizkoz? Muxu bat Leireren partetik.

**Ezkurrako** Leireri zorionak urtarrilaren 16an urteak bete dituelako. Segi beti bezain guapa eta juergazale. Aupa pilotaria!

**Doneztebeko** Carlos, Luismi eta Mariñari: ezagutu zintuztegunetik txora-txora eginda gaituzue. Ea noiz ikusten dugun elkar. Elizondoko neska batzuen partetik.

Zorionak **Ezkurrako** Leire Mariezkurrenari: urtarrilaren 16an urteak bete zituelako. Muxu haundi bat Ainhoa eta Idoiaren partetik. Aupa motorista!

Zorionak **Sunbillako** Iratxe Eizagirreri, otsailaren 1ean 17 urte beteko dituelakoz. Koadrilakoen parteetik. Afarian aterako den txanpain botila eta Bordatxuko gure sarrerako zure kontu, Potto!

## BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNIDADEA

***MANKOMUNIDADEKO ESTATUTUEN ALDAKETAK***

Bortzirietako Euskara Mankomunidadeak, 1999ko azaroaren 15ean egindako bileran, Mankomunidadeko Estatutuen 8. artikulua eta 11.1. artikulua aldatzeko espedientea hasiera batean onestea erabaki zuen.

Espedientea jendaurrean egonen da hilabete bateko epean, interesatuek aztertu eta egoki juzkatzen dituzten erreklamazioak egin ditzaten.

Arantzan, mila bederatziehun eta laurogeita hemeretziko abenduaren 10ean. Mankomunidade Burua, Jose Ramon Amoros Oskoz.

*Arantzan, 2000ko urtarrilaren 11an.*

*MANKOMUNIDADE BURUA,*

***Jose Ramon AMOROS OSKOZ***

# Herriko ofiziale, lantegi, denda, ostalari eta profesionalen telefonoak




**Liburu hau** urte hasieran **banatuko da** TTIPI-TTAPArekin batera **etxe guztietara**. Hortaz, joan den urteko TELEFONO GIDAn zure telefonoa ez bazen agertu, edo aurten telefono eta helbide berriak baldin badituzu, **deitu lehenbailehen.**

**ttipi-ttapa** • Herriko Etxeko Plaza, 1 • E-31780 BERA

**(+34) 948 63 11 88**

# URTEBETETZEAK

*Argazkiak berreskuratzeko, bidali sobrea zure helbidearekin.*

**OHARRA:**
**Argazki bakoitzarekin batera 35 Ptako 15 seilu igorri behar duzue. Gainerakoan ez dira argitaratuko. Argazkia itzultzea nahi baduzue sobre bat eta helbidea bidali.**



**Eider Eskudero** beratarrak urteak bete ditu urtarrilaren 7an. Zorionak Jeier.



Usurbilgo **Asun Mindegia**k urteak bete ditu urtarrilaren 3an. Zorionak guraso eta anaien partetik. Ongi pasatu senarra eta Naroarekin.



**Oier Zapirain Migelena** beratarrak urtarrilaren 14an bete du urtea. Zorionak atta eta amaren partetik.



**Miren Vicente** etxalartarrak 10 urte beteko ditu urtarrilaren 28an. Zorionak Xabieren partetik.



**Javier Pikabea Molinero** beratarrak ilbeltzaren 29an beteko ditu 5 urte. Muxu haundi bat familiaren eta osaba Juanmariren partetik.



**Unai Canabal Etxarte** igantziarrak urtarrilaren 31n 5 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat Oihan, aita eta amaren partetik.



**Andoni Rodriguez Bereau**k urtarrilaren 24an 3 urte bete ditu. Zorionak Bera eta Arantzako familiaren partetik.



**Beñat Oronoz Inda**k 8 urte bete ditu urtarrilaren 17an. Zorionak bere familia guziaren partetik.



**Uxue Zelaieta Danboriena**k urtarrilaren 17an 2 urte bete ditu. Zorionak amatxi, atta, ama eta Jonen partetik. Muxu haundi bat.



**Uxue Zelaieta Danboriena** beratarrak urtarrilaren 17an 2 urte bete ditu. Zorionak Igantziko familiaren partetik.



**Jabier Musgo** beratarrak urtarrilaren 17an 2 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat bere lagunen partetik.



Mendillorriko **Iñigo Sukuntza Lopez**ek urtarrilaren 18an urtea bete du. Zorionak eta muxu bat guraso eta Leitzako Mª Jesusen partetik.



**Aizea Petrirena Rozas**k 2 urte beteko ditu urtarrilaren 29an. Zorionak Gexan eta familiaren partetik.



**Ainhoa Astiz Goñi** lekaroztarrak 5 urte bete ditu urtarrilaren 5ean. Aunitz urtez eta zorionak moñoña! Nekane, ama eta aitaren partetik.



**Mikel Aldazabal Zamarreño** beratarrak 5 urte beteko ditu urtarrilaren 28an. Zorionak Naiara, Iñigo, guraso eta amoñaren partetik.



**Angelines Carrillo Ruiz** beratarrak urteak bete ditu urtarrilaren 21ean. Zorionak denon partetik. Muxu bat Estitxuren partetik.



**Irati Arbelaitz Iguzkiagirre** igantziarrak 4 urte beteko ditu urtarrilaren 18an. Zorionak familiaren partetik.



**Rafa Olaziregi** beratarrak urteak bete ditu urtarrilaren 22an. Zorionak. etxekoen partetik. Aunitz maite zaitugu!



**Maider Olaziregi Urkiola** beratarrak 4 urte beteko ditu otsailaren 9an. Zorionak moñoña! Oskar, Eba eta familiaren partetik.



**Jesus Iraola Bertiz** beratarrak urtarrilaren 28an beteko ditu urteak. Zorionak anai-arreba eta iloben partetik.



Greeleyko **Kaelae Iriarte**k urtarrilaren 23an 9 urte bete ditu. Zorionak Sunbilla, Doneztebe eta Lesakako familien partetik. Kiss Kaelae!



**Mª Josefa Oskoz** eta **Aitziber Lizardi** aranztarrek 84 eta 11 urte beteko dituzte otsailaren 8 eta urtarrilaren 20an. Zorionak familia guziaren partetik!



**Jérôme**, gure Lomu, behar ez delarik ez pusatu, eta bi donibandar parean dituzularik kasu! Urtebetetze on! Zure lagunak.



**Aitziber** eta **Maialen Telletxea Zubieta** oiartzuarrak 1 eta 5 urte beteko dituzte otsailaren 11 eta 12an. Zorionak familiaren partetik.



**Iñigo Etxegarai Aldabe** beratarrak urtarrilaren 20an 2 urte bete ditu. Zorionak eta musu haundi bat aita eta amaren partetik.



**Olaia Gandara Urtxegi** sunbildarrak urtarrilaren 21ean bete ditu 6 urte. Zorionak bere familiaren partetik eta bereziki Txirriren partetik.



**Vidaltxo Etxarte Martinez** igantziarrak otsailaren 6an 31 urte beteko ditu otsailaren 6an. Zorionak familiaren partetik.



**Banesa San Juan**ek urteak bete ditu urtarrilaren 26an. Zorionak zure lagun hoberenaren partetik. Txanpainaren zain nago. Aupa Pelox!



**Leire Matxinena Altzugarai** urroztarrak 4 urte bete ditu urtarrilaren 19an. Zorionak berritsu! Muxu haundi bana familia guziaren partetik.



Lesakako **Miren Zudaire**ri zorionak urtarrilaren 25ean 17 urtetxo beteko dituelako. Astotxo, Astotxo zahartzen ari gaitun! Lesakako zure lagunak.



**Unai Telletxea Iraola** igantziarrak otsailaren 5ean beteko ditu 4 urte. Aunitz urtez Eneko, atta eta amaren partetik.



**Jon Arozena Buldain** irundarrak 5 urte beteko ditu otsailaren 14an. Zorionak bere familiaren partetik.



**Xabier Altxu Arozena** iturendarrak 9 urte beteko ditu otsailaren 12an. Zorionak bere familiaren partetik.



**Alazne Altxu Arozena** iturendarrak 9 urte beteko ditu otsailaren 12an. Zorionak bere familiaren partetik.



**Izaskun Arozena Arburua** urroztarrak 9 urte beteko ditu otsailaren 1ean. Zorionak bere ahizpa Maider eta familiaren partetik.




KULTURKARI

publizitatea zerbitzuak

**ADOS**

*Julian Izura Nuin*

Telefonoak: 948 451 841 • 607. 97 86 56 • e-mail: ados@iname.com

Parrokia 9, behea • **DONEZTEBE**

**Bera.**
- Etxe bat berritzeko.
- Pisu bat Altzate auzoan
- Pisu bat igogailuarekin **erosi** nahi da.
- Eztegara pasealekuan 40 m²ko bajera salgai.
- Baserri bat bere terreno guziekin.
- 1.300 m²ko nabe pabiloia salgai.

**Lesaka.**
- Etxe elkar atxikiak orain egitekoak.
- 400 m²ko nabe pabiloia salgai edo errentan emateko.
- Bajera salgai Erosle ondoan.
- Baserri bat salgai, 50.000 m²ko lur-eremuarekin. Lau etxe egiteko moduan.

**Etxalar.**
- Etxe elkar atxikia salgai. Azkena.
- Harrizko etxea salgai lur-eremuarekin.
- Baserri moldatua lur-eremuarekin.
- Baserri batzuk salgai, terrenoarekin edo gabe, nekazal turismorako aproposak.

**Arantza.**
- Pisu mobleztatua salgai, arras polita, aukera: 9 milioi.
- Pisu bat bere garaje, soto eta ganbararekin salgai.
- Pisu bat salgai, 7,5 milioi.

**Igantzi.**
- Baserri bat terreno aunitzekin edo gabe salgai.

**Sunbilla.**
- 57 m2ko bajera salgai, arras prestatua.
- Baserri bat salgai, lur-eremuarekin.
- Lur-eremu eraikigarria salgai. Herrian bertan. 4 milioi.
- Pisu mobleztatua errentan emateko.

**Doneztebe.**
- Bajera bat salgai, 60 m², erabat prestatua, Nerea zapatadendaren ondoan.
- Pisua salgai, herrian bertan. Bizitzen jartzeko prest. 10 milioi.
- 3.000 m²ko bi lur-eremu, bi etxe egiteko, toki arras politean.
- Bajera bat, Udaletxetik hurbil, negozioa jartzeko prestatua.
- Bajera batzuk salgai herrian bertan.
- Bajera batzuk errentan emateko.
- Osasun etxearen ondoan azkeneko apartamentua.
- Udaletxe ondoan azken bi pisuak salgai, 120 m² eta 170 m²koak.
- Aparango 200 m²ko nabe pabiloia errentan emateko. Merke emanen da.

**Elgorriaga.**
- Pisu bat salgai, bere ganbararekin, berogailua badu, erabat hornitua.
- Pisu bat salgai, arras rustikoa. Bajera haundi batekin.
- Lur-eremu bat etxea egiteko.
- Borda bat salgai, lur-eremuarekin. Ongi kokatua.

**Ituren.**
- Landetan lur-eremua salgai, etxe bat egiteko.

**Zubieta.**
- Etxe haundi bat salgai.

**Eratsun.**
- Etxe bat salgai.

**Lekunberri.**
- Pisu batzuk, lur-eremu bat eta etxe batzuk salgai.

**Donamaria.**
- Partzela eraikigarriak salgai. 300 m²tik goiti.
- Baserria salgai.

**Igurin.**
- Lur-eremu pare bat salgai, eraikigarriak, merke emanen dira.

**Urrotz.**
- Baserri zaharberritua lur-eremuarekin.

**Beintza.**
- Lur-eremuak salgai, herritik hurbil.

**Labaien.**
- Lur-eremu eraikigarria salgai, ongi kokatua.

**Legasa.**
- Lur-eremu pare bat salgai, etxeak egiteko.
- Pisu pare bat salgai, merke-merke, 7 milioitik goiti.
- Lur-eremu bat erosi nahi da baratzea jartzeko.

**Oronoz-Mugairi.**
- Pisu bat salgai.
- Partzela eraikigarriak etxeak egiteko.
- Laster egitekoak diren pisuak salgai.

**Irurita.**
- Apartamentu eta pisu berriak.
- Lur-eremua salgai, etxe bat egiteko.
- 7.000 m²ko belagia salgai.

**Elizondo.**
- Pisu bat salgai, hagitz polita. 120 m² ditu, Santiago karrikan, hiru aldetara ematen du.
- Pisu bat, erabat prestatua, Giltxaurdi karrikan.
- Pisu batzuk errentan emateko.

**Erratzu**
- Etxe bat bizitzera sartzeko prest.

**Iruñea, Irun, Donostian edo nonahi**
- Zerbait erosi edo saldu behar baduzu deiguzu konpromezurik gabe.

**Batzuk**
- Karteran aukera gehiago ditugu
- Kontratuak egiten ditugu
- Bordak erosi nahi dira. Ez du inporta egoera eta tokiak.


SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK

ETXE, KOMERTZIO, AUTO, BIZITZA EDOTA JUBILAZIO ASEGURUAK.

ORAIN %25EKO
DESKONTUA ASEGURUTAN


